

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

3379

EBAZPENA, 2021eko maiatzaren 26koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita maskulinizatutako lanbideetan emakume langabeei prestakuntza emateko eta kontratazioak egiteko proiektuetara bideratutako dirulaguntza-deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2021eko maiatzaren 25eko bileran hartutako erabakiaren bidez, dirulaguntza-deialdia onartzea erabaki du, maskulinizatutako lanbideetan emakume langabeei prestakuntza emateko eta kontratazioak egiteko proiektuetarako, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan. Lanbideren Estatutuak onartzeko maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren 10.2 artikuluko p) apartatuan ezarritakoaren arabera, erakunde autonomo horren zuzendari nagusiari dagokio deialdia argitaratzea.

Azaldutakoa dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Maskulinizatutako lanbideetan emakume langabeei prestakuntza emateko eta kontratazioak egiteko proiektuetara bideratutako dirulaguntza-deialdia argitaratzea, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan. Deialdi hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak onartu du, 2021eko maiatzaren 25eko bileran hartutako erabakiaren bidez, eta ebazpen honen eranskin gisara jaso da.

Bigarrena.– Jakinaraztea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituela ondorioak laguntzen deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiak.

Hirugarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiaren aurka, zeinaren bidez deialdia onartzen baita, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 26a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusia,
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.

ERANSKINA

MASKULINIZATUTAKO LANBIDEETAN EMAKUME LANGABEEI PRESTAKUNTZA EMATEKO ETA KONTRATAZIOAK EGITEKO PROIEKTUETARA BIDERATUTAKO DIRULAGUNTZA-DEIALDIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ENPLEGURAKO LANBIDE HEZIKETA ARAUTZEN DUEN MAIATZAREN 31KO 82/2016 DEKRETUAREN ESPARRUAN

Gaur egun, pertsona ugari daude gizartean baztertuta, eta bazterkeria horren arrazoi nagusietako bat enplegu-falta da. Gure herrian, egoera horrek oso bereziki eragiten die emakumeei. Gaur-gaurkoz, oraindik ere, ehuneko 15,6ko langabezia-tasa dute (COVID-19aren krisia baino lehen), gizonen tasaren gainetik (% 12,2). Horrenbestez, bi sexuen langabezia-tasa 2019ko laugarren hiruhilekoan % 13,78koa zen. Erkidego-mailako datuak aztertzen baditugu, bi sexuen arteko arrakala murriztu egiten da. Hala, emakumeen langabezia-tasa % 9,62koa da, eta gizonen langabezia-tasa % 8,59koa. Ondorioz, langabezia-tasa orokorra % 9,09koa da, 2019a amaitzean Biztanleria Aktiboaren Inkestatik hartutako datuen arabera.

Gaur egun lan-merkatu sartzeko emakumeen profilak bilakaera nabarmena izan du, gizonen pareko mailetan kokatu arte. Hala ere, merkatu horretan oraindik ere aldibereko lanak gehiago antzematen dira emakumeen artean, soldata baxuagoak ageri dira balio bereko lanetan, eta lan-segregazioko modu berriak ikus daitezke (sektorea, jarduera, lanpostuak, lanbideak...). Ondorioz, nahiz eta emakumeak lan-merkatuan sartzeko prozesua etengabe hobetzen joan den, ez dira espero ziren erritmoa eta sakontasuna lortu, parekidetasunik eza eta diskriminazioa antze-man baitaitezke emakumeen lan-bizitzan zehar.

Egungo pandemiak ez du egoera hobetzen lagundu. Agertoki berri honetan, izan ere, ikastetxeak itxi eta etxeko zerbitzuak kanporatzeko zailtasunak areagotu egin dira, eta, beraz, familia-erantzukizunak (oraindik ere modu ez parekidean banatzen direnak) inoiz ez bezala igo dira. Hori dela eta, emakumeen lan-aukerak kaltetu egin ahal izan dira. Beraz, genero-desberdintasunen igoera ekar lezakeen egoera hori arintzea komeni da, emakumeak zailtasun gehiago izaten ari baitira beren bizitza profesionala eta familiarra uztartzeko egoera berri honetan.

Enpresa-jarduera eta generoa kontuan hartuta emakumeen ordezkaritza zein den aztertzen badugu, lan-prekaritate handiagoa izan ohi duten jarduera-adarretan emakumeen proportzioa askoz handiagoa dela ikusiko dugu (gainordezkaritza), prekaritate baxuagoa duten beste jarduera-ardatz batzuen aldean. Genero-desberdintasun horrek desabantaila ugari sortzen dizkie emakumeei, eta, beraz, zaurgarriago bihurtzen ditu lan-merkatu edo autoenplegura sartzeko orduan. Pandemia, gainera, ez da neutrala genero-kontuetan. Gehiago eragiten die emakumeei, eta, bereziki, ekonomikoki zaurgarrienak diren sektoreetan lan egiten dutenei, besteak beste merkataritzan, turismoan edo ostalaritzan (emakumeen partaidetza handiagoa da horietan).

Lan-jarduerarekiko harremanak, hain zuzen ere, gure gizartean oraindik ere dirauten genero-aurreiritzi eta -estereotipoetan dute oinarria. Izan ere, estereotipo eta aurreiritzi horiek lanaren banaketa sexuala sustatzen eta betikotzen duten jarrerak eta jokabideak bultzatzen dituzte. Ondorioz, segregazio horizontala sortzen da, eta, bertan, emakumeak zerbitzuen sektoreetan metatu ohi dira (ehungintza, bulegoak, txikizkako salmenta, hezkuntza, osasun-jarduerak, etxeko eta gizarteko zerbitzuak...), maskulinizatutzat jotzen diren beste sektore batzuen aldean (esaterako, eraikuntza, manufaktura-industria, garraioa, logistika, edo handizkako merkataritza).

Segregazio horizontal hori ageri da, era berean, enplegurako prestakuntzaren eremuan. Hala, alde nabarmenak daude profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko prestakuntza-ekintzen partaide-tzan, generoaren arabera, kontuan hartuta zein familia profesionalekoak diren.

Hori guztia dela eta, beharrezkoa da gaur egun emakumeak azpiordezkatuta dauden lan-jarduerako sektoreen barruan sartu, iraun eta sustatzea zailtzen duten egituretan aldaketak indartzeko ekintza positiboko neurriak garatu eta martxan jartzea.

Europako Kontseiluko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako batzordeak honela definitu du ekintza positiboa: egoera sozial eta kulturalen ondoriozko diskriminazioak konpentsatu edo zuzendu ahal izateko neurrien bidez aukera-berdintasuna ezartzen laguntzen duen estrategia. Asmoa, edonola ere, ez da politika publikoetan denbora mugagabea egotea, baizik eta aldi baterakoa izatea.

Horretarako, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak (2018), euskal agintari publikoek berdintasunaren gainean duten jarduera orientatzeko diseinatuak, «emakumeen autonomia ekonomikoa» ezartzen du bere programaren barruan. Helburu operatibo horrek emakumeen jarduera eta okupazioa areagotzea du xede, hobeto ordainduta dauden eta kalitatezkoak diren enpleguetako partaidetzaren bidez.

Plan honetan, nahiz eta berriaz adierazten den azken 25 urteetan emakumeen okupazio-tasa igo egin dela, gizonen okupazio-tasa murriztu ahala, emakumeen jarduera-tasak gizonen jarduera-tasaren azpitik egoten jarraitzen du, eta, beraz, banaketa sexualak bere horretan dirau lan-merkatuan, oso maskulinizatutako eta oso feminizatutako adarrak bereziz. Azken horietan daude, besteak beste, pertsonen zaintza-lanekin lotutakoak.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak titulu-tako batean arautzen du lana aukera-berdintasunean eskuratzeko eskubidea. Hala, I. kapituluak (tratu- eta aukera-berdintasuna lan-esparruan) 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, enplegu-politikek helburu nagusien artean izango dute lan-merkatuan emakumeen partaidetza gehitzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrian aurrera egitea. Horretarako, emakumeen enplegu-iraunkortasuna hobetuko da, euren prestakuntza-maila eta lan-merkatuaren betekizunetara egokitzeko gaitasuna indartuz.

Zehazki, azpimarratzen duenez, laneratze aktiborako programa guztiek emakumeen hezikuntza-maila eta adin guztiak jasoko dituzte, baita lanbide-prestakuntza ere. Halaber, lehentasunez bideratu ahal izango dira emakumeen kolektibo jakin batzuentzat, edo horietan emakumeen kopuru jakin bat ezarri ahal izango da.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 37. artikuluan ezartzen duenez, enplegu-zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa egokitu daitezen, euskal administrazio publiko eskudunek enplegu-zerbitzuek emakume gutxi dagoen lanpostuetan emakume gehiago kontratatu daitezen lortzea helburu duten neurriak har ditzatela sustatuko dute. Horretarako, emakumeek prestakuntza-ekintzetan parte har dezaten bermatzeko behar diren laguntza-mekanismoak eta -zerbitzuak eratu behar dira, bereziki emakumeak gutxiengoa diren lanpostuetara eta mailetara sartzeko gaitzen dituzten prestakuntza-ekintzetan.

Hori guztia dela eta, deialdi honek emakumeei lanbide maskulinizatuetan sartzeko eta prestakuntza emateko erraztasunak jarri nahi ditu, prestakuntza- eta enplegu-programa espezifikoek bidez. Programa horiek gauzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren arau-babesa dauka. Azken horrek bere helburuen artean dauka langileei lan-merkatuan eskatutako kompetentzia profesionalekin

eta enpresen beharrezanekin bat datozen ezagutzak eta praktikak ematea. Era berean, ezartzen duenez, enplegurako lanbide-heziketak aukera-berdintasunean oinarrituko printzipioak bete behar ditu, edozein izanik ere adina, generoa, egoera pertsonala edo lan-arlokoa.

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (zeinaren bitartez Euskal Autonomia Erki-degoko Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen baitira eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen), Lan eta Enplegu Sailari izendatzen dizkio enplegu-politika eta enplegurako lanbide-heziketa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lankidetzarekin, dauzkan erantzukizunei dagokienez, Hezkuntza Sailak gai honetan dituen eginkizunak oztopatu gabe.

Lan eta Enplegu Sailari atxikitako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoari dagokio, beste zenbait eginkizunen artean, enplegu- eta prestakuntza-programak egitea, eta eginkizun horren barruan dago, besteak beste, dirulaguntza-deialdiak onartu eta izapidetzea, hala ezartzen baitute 3.b) artikuluan Lanbideren estatutuek (maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuak onartuek). Enplegurako prestakuntzaren barruan, laneratzeko eta gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboek zuzendutako prestakuntza espezifikoak sartzen da.

Maskulinizatutako lanbideetan emakume langabeei prestakuntza emateko eta kontratazioak egiteko proiektuetara bideratutako laguntzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2021eko ekitaldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusita daude. Organismo autonomo horren Administrazio Kontseiluak onartu zuen plana, 2020ko abenduaren 15eko batzarrean hartutako Erabakiaren bidez, eta, hartara, bete egin zuen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan xedatutakoa.

Horregatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak egindako proposamena kontuan hartuta, erakunde autonomo horretako Administrazio Kontseiluak, 2021eko maiatzaren 25eko saioan, maskulinizatutako lanbideetan emakume langabeei prestakuntza emateko eta kontratazioak egiteko proiektuetara bideratutako dirulaguntza-deialdia onartu du, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan, artikulua hauen arabera:

1. artikulua.– Xedea eta baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdi honen xedea da maskulinizatutako lanbideetan emakume langabeei prestakuntza emateko eta kontratazioak egiteko proiektuak finantzatzeko laguntzak arautzea 2021-2022 aldirako.

2.– Deialdi hau finantzatzeko baliabide ekonomikoak 2.000.000 eurokoak dira: horietatik 516.000 euro 2021eko ordainketa-kreditukoak dira; 344.000 euro 2022ko konpromiso-kreditukoak; eta 1.140.000 euro 2022ko ohiko aurrekontuaren ordainketa-kredituaren kargurakoak, honela banatuta:

– 860.000 euro prestakuntza-ekintzak eta merkatua aztertu eta partaidetza sustatzeko jarduerak finantzatzeko; horietatik 516.000 euro dira 2021eko ordainketa-kreditukoak eta 344.000 euro 2022rako konpromiso-kreditukoak.

– 1.140.000 euro lan-kontratuak finantzatzeko, 2022ko ohiko aurrekontuko ordainketa-kredituaren kargura.

Kopuru horiek handitu daitezke, baldin eta indarreko legeriaren arabera aurrekontuetan aldatu onartzen badira. Aldaketa horiek eginez gero, horren berri jakinaraziko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

3.– Lan-kontratuak finantzatzeko laguntzak ebazteko, aurretik kreditu nahikoa eta egokia egon behar da 2022. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan, betiere Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluko ondorioetarako; agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargutan egiteko diren gastu-espeditenteen aurretiazko izapidetzea araupetu zen.

4.– Deialdi honen xede diren dirulaguntzak Europako Gizarte Funtsak lagunduta finantzatuta egon daitezke osorik edo zati batean, programa hauen esparruan:

a) GFE Euskadi 2014-2020 Programa Operatiboa, REACT-UE ardatzaren barruan, Europar Batasunak COVID-19ari ematen dion erantzunaren baitan, edo/eta 2021-2027 aldian.

b) Gazte Enpleguko Programa Operatiboa 2014-2020.

2. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

Diruz lagundu ahal izango dira prestakuntza eman eta kontratazioak egiteko proiektuak, besteak beste prestakuntza-ekintzak kontratazio-konpromisoarekin, merkatua aztertu eta partaidetza sustatzeko jardurekin eta lan-kontratazio eraginkorrekin uztartzen dituztenak, maskulinizatutako lanbideetan, emakumeek horietan duten presentzia areagotzeko.

Diruz lagundu daitezkeen hiru jarduera-motek (kontratatzeko konpromisoa duen prestakuntzak, merkatua aztertu eta partaidetza sustatzekoak eta kontratatzeakoak) honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

A) Kontratatzeko konpromisoa hartzen duten prestakuntza-ekintzetan, diruz lagundu ahal izango da prestakuntza kualifikatzailea, modalitate presentzian (lehentasunez profesional-tasun-ziurtagiriei lotutakoa), bai eta zeharkako prestakuntza eta oinarrizko eskumenak eskuratzeko prestakuntza ere, proiektuari amaiera ona emateko beharrezkoa bada. Emango diren prestakuntza-espezialitate kualifikatzaileak, lehentasunez, deialdi honen eranskinean jasotakoak izango dira.

Hala ere, eranskin honetan jaso ez diren baina proiektuaren helburua betetzeko beharrezkotzat jo diren beste eskumen profesional batzuk identifikatu badira, Prestakuntza Espezialitateen Katalogoan daudenen osagarri den prestakuntza-espezialitatearen bat edo espezialitate berriren bat eman ahal izango da, proiektu honetarako apropos sortutakoa. Horretarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak halaxe onartu beharko du aldeaz aurretik, eta Katalogoan sartuta egon beharko da, proiektua-eskaria baino lehen.

Proiektuek honako ezaugarri hauek beteko dituzte:

a) Prestakuntza kualifikatzailea amaitu eta gainditzten duten ikasleen % 70 kontratatu beharko da, gutxienez, artikulua honen C apartatuan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten lan-kontratu bidez.

b) Honako prestakuntza-helburu hau bete beharko da: prestakuntza hasi duten ikasleen % 70ek gutxienez amaitu beharko dute prestakuntza-ibilbidea, A apartatuko h) letran jasotakoaren arabera.

c) Profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako ekintzek gutxienez prestakuntza-modulu oso bat programatu beharko dute; bestalde, profesionaltasun-ziurtagiri bat lortzera bideratuta ez dauden prestakuntza-espezialitateak espezialitatearen iraupen osoan zehar eman beharko dira.

d) Prestakuntzaren iraupena gutxienez 120 ordukoa eta gehienez 560 ordukoa izango da. 2021. urtean, proiektuko prestakuntza-ekintzetako gutxienez bat hasi beharko da, gehienez dirulaguntza

eman izanaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo bi hilabeteetan, eta 2022ko irailaren 30a baino lehen amaitu beharko da (lantokietako prestakuntza praktikoko modulua edo lanekoak ez diren praktikak barne, hala badagokio).

Eskatzailea prestakuntza-erakunde bat bada, erantzukizunpeko adierazpenean (eskariarekin batera aurkeztutakoan) hitzeman beharko du proiektuaren xede den lan-kontratazioa lortuko duela, eta, ondoren, prestakuntza-ekintza amaitu baino hilabete lehenago, enpresa kontratatzaileen kontratazio-konpromisoa aurkeztuko da. Enpresetan laneratzeko, konpromiso horiek bete beharko dira. Beste enpresa batzuetan laneratzeko aukera onartuko da, soil-soilik baldin eta konpromisoa adierazi duen enpresaren batean laneratzeari eragozten duten kausak badaude eta horiek agiri bidez justifikatu badira.

e) Profesionaltasun-ziurtagiri oso bat eman denean, kontratatuko diren ikasleek prestakuntza praktikoko modulu bat egin ahal izango dute, baldin eta prestakuntza-ekintza amaitzeko aurreikusitako epea baino lehen amaitzen bada, hots, 2022ko irailaren 30a. Lantokian prestakuntza praktikoko modulua egiten ez bada, ondorengo lan-esperientziarekin baliozkotuko da, baldin eta hiru hilabete baino luzeago egiten bada benetan lan eta lan-jarduera hori lotuta badago moduluko prestakuntza-edukiarekin.

f) Lan-harremana formalizatzeraz iristen ez diren ikasleei dagokienez, edo, azkenean, harreman hori hiru hilabetez beherakoa bada, prestakuntza-erakundeak prestakuntza praktikoko modulua lantokian egiteko erraztasunak emango ditu, ikasleek dagokion profesionaltasun-ziurtagiria lor dezaten. Horretarako, 13. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

g) Prestakuntza-ekintzak onartzeko, gehieneko partaide-kopurua 15 izango da, eta gutxienezkoa 8.

h) Proiektuek prestakuntza-ekintza kualifikatzaile bakarra edo hainbat ekintza izan ditzakete, eta horietako batek, gutxienez, kualifikatzailea izan beharko du, prestakuntza-ibilbide bat osatuz. Prestakuntza-ekintza bat baino gehiago egonez gero, proiektua hasten duten partaideen behin betiko taldea osatuta eta itxita geratuko da, ematen den lehen ekintza kualifikatzailean partaide berriak ordezkatzeko edo sartzeko epea amaitzen denean.

i) Prestakuntza-ekintza bakoitzaren iraupen osoaren % 25 betetzean, hasi ziren partaideen % 75ek bertan jarraitu beharko dute (onartzen diren bi partaide gehigarriak kontuan hartu gabe). Ehuneko txikiagoak jarraitzen badu, ekintzak aurrera jarraitu beharko du, eta amaitzean likidatu beharko da, deialdi honen 17. artikuluan adierazitakoaren arabera. Ondorio horietarako, prestakuntza hasi duten partaideen kopurutzat hartuko da prestakuntza-ekintzaren lehen egunean prestakuntza hasi zuten pertsona guztien kopurua.

B) Dirulaguntza jasoko dute enpresa kontratatzaileak gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunerako politiketan harremanetan jartzeko eta inplikatzeko aukera ematen duten merkatu-prospektiorako jarduerak, kontratatzea gauzatzuz, bai eta hautagaien partaidetza eta hautaketa sustatzeko jarduerak ere.

C) Lan-kontratuei dagokienez, diruz lagundu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan zerbitzuak emateko deialdi honen babesean diruz lagundutako prestakuntza-ekintzak amaitzen dituzten ikasleekin egiten diren lanaldi osoko kontratuak, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Kontratuak idatziz formalizatu behar dira, lan-legerian aurreikusitako edozein kontratu-modalitatean oinarrituta, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua izan ezik.

Ondorio horietarako, kontrataziotzat hartuko da ikasleak bazkide-langile edo lan-bazkide gisa sartzea kooperatiba-sozietate batean, edo lan-sozietate batean bazkide-langile gisa sartzea. Horretarako, sozietate horretan sartu dela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.

b) Lan-kontratuaren iraupena, gutxienez, 6 hilabetekoa izango da, lanaldi osoan. Baldintza hori ez da urratutzat joko, baldin eta, lanaldi osoko kontratua hitzartu ondoren, langileak lanaldia murrizteko eskubidea baliatzen badu, legezko zaintza dela-eta adingaberen bat zuzenean zainzteko, Langileen Estatutuaren 37. artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Kontratazioa irakatsitako prestakuntza-espezialitatearekin zerikusia duen langintza batean egin beharko da. Alde horretatik, lanpostu egokitzat hartuko da aurretiazko prestakuntzan eskuratutako ezagutza teoriko-praktikoei lotutako lanak egitea xede duena. Profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako prestakuntzaren kasuan, ziurtagiri horiek arautzen dituen araudian jasotako lanbideren batekin bat etorri beharko du.

d) Lan-kontratua prestakuntzaren ondoren hasi beharko da, eta, nolahi ere, prestakuntza amaitu eta gehienez ere bi hilabeteko epean, lantokiko prestakuntza praktikoa barne, hala badagokio. Hala ere, kontuan hartu behar da lan-kontratua egiteagatiko dirulaguntzaren eskaera aurkezteko gehieneko data, 6.5.b) artikuluan aurreikusitakoa.

e) Ez da diruz lagunduko honako hauek kontratatzea: enpresaburuaren edo enpresaren kontrola duenaren ezkontidea, oinordekoak eta gainerako senideak, bigarren mailara arteko odol- edo ezkontza-ahaidetasuna arte, eta sozietate izaera juridikoa duten enpresetako administrazio-organetako enak edo zuzendaritzako kideenak; eta azken horiek kontratatzea ere ez da lagunduko diruz.

3. artikulua.– Enpresa eta erakunde onuradunak.

1.– Kontratatzeke konpromisoa duten prestakuntza-ekintzetara bideratutako laguntzetan, honako hauek izan ahalko dira onuradun:

a) Prestakuntza jaso duten pertsonak zuzenean kontratatutako dituzten eta lantokia Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa pribatuak, edozein forma juridiko dutelarik ere. Baztertuta geratutako aldi baterako laneko enpresak, outsourcing jarduerako enpresak eta langileen zerbitzu anitzeko enpresak, bai eta edozein enpresa publiko ere.

Prestakuntza egin ahal izango dute:

– Bitarteko propioekin: prestakuntza eman ahal izateko dagokion profesionaltasun-ziurtagirian egiaztatu beharko dute edo profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzeko ez diren espezialitateetan izena eman, prestakuntza hasi baino lehen. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatutako Prestakuntza Erakundearen Erregistroko altak bere horretan jarraituko du, prestakuntza amaitu arte. Orduan, baja emango zaio.

– Kontratatuz, egiaztatuta dauden erakundeekin edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Prestakuntza Erakundearen Erregistroan izena emanda daudenekin.

b) Prestakuntza-erakunde pribatu edo publikoen bidez, baldin eta dirulaguntzaren eskaera aurkeztu den datan egiaztatuta eta/edo inskribatuta badaude Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatutako Prestakuntza Erakundearen Erregistroan, autonomia-erkidegoren bateko enplegurako prestakuntza-erakundearen beste erregistro batean edo prestakuntza-erakundearen estatutoko erregistroan, prestakuntza-proiektua osatzen duten prestakuntza-ekintzei dagozkien espezialitateak irakasteko.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntza lortzeko, enpresek eta prestakuntza-erakundeek laguntzaren xede den prestakuntza-proiektua osatzen duten prestakuntza-ekintzak egiteko behar diren pertsonak eta bitarteko materialak izan beharko dituzte, edo dirulaguntza esleitu ondoren, prestakuntza-jarduera hasten denean, beroriek lortzeko konpromisoa hartu beharko dute. Ezin da prestakuntza-jardueraren egikaritzea azpikontratatu, egiaztatutako edo izena emandako prestakuntza-erakundeak kontratatzeraz jotzen duten enpresa onuradunen kasuan adierazitako egoeretan salbu. Ondorio horietarako, ez da azpikontrataziotzat jotzen prestakuntza emateko irakasleak (persona fisikoak) kontratatzea. Instalazio eta baliabide horiek propioak edo hirugarren erakunde pribatu edo publikoenak izan ahal izango dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean baliatu beharko dira.

Informazio hori egiaztatzeko, erakundearen legezko ordezkariak erantzukizunpeko adierazpen bat egingo du (eskabide honetara sartuko da). Betiere, erakunde eskatzaileak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren esku izan beharko ditu adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla erakusten duten dokumentuak.

Prestakuntza-ekintzak egiteagatik dirulaguntzarik ezin izango du hartu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz lagundutako prestakuntza-ekintzaren batean eskuratutako kontratazio-konpromisoen % 70 baino gehiago urratu duen enpresak edo erakundeak, aurreko hiru ekitaldietako kontratazio-konpromisodun prestakuntzarako dirulaguntza-deialdiren batean, ez eta deialdi horietan prestakuntza hasi zuten ikasleen % 30 kontratatzea lortu ez duten erakundeek ere, prestakuntza utzi edo gainditu dutenez gorabehera.

2.– Merkatua aztertzeko eta partaidetza sustatzeko jarduerak egiteagatiko laguntzetan, emakumeei prestakuntza emateko eta kontratazioak egiteko proiektuak sustatzen dituzten prestakuntza-erakundeak izan ahal dira onuradun, hots, aurreko apartatuan kontratazio-konpromisoa duten prestakuntza-ekintzak egiteagatiko dirulaguntzaren onuradun gisa jasota daudenak.

3.– Prestakuntza-ekintzen ikasleekin formalizatutako lan-kontratuak finantzatzeko laguntzetan, enpresa pribatuak izan ahal dira onuradun, izan pertsona fisiko edo juridiko, baldin eta lantokia Euskal Autonomia Erkidegoan badute eta ikasleak kontratatzen badituzte, 2. artikuluko C apartatuan aurreikusitako baldintzetan. Ezin izango dira onuradun izan, bestalde, administrazio publikoak eta erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeak, ez eta enplegurako aldi baterako lan-enpresak, outsourcing jarduerako enpresak eta langileen zerbitzu anitzeko enpresak ere.

Enpresa onuradunek enpresako langileen legezko ordezkariari jakinarazi beharko diote deialdi honen babespean egindako kontratazioa.

4.– Ezingo dira izan onuradunak honako egoera hauetako batean diren erakundeak:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla, dirulaguntza eman eta ordainketa bakoitza egin baino lehen. Hala ere, eskatzaileak berariaz aurka egin diezaioke egiaztatze horri, eta, halakorik egiten baldin badu, baldintza hori betetzen duela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

b) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta ez edukitzea.

c) Eskatzaileak zigor- edo administrazio-zehapenen bat izatea, dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukerarik gabe uzten duenik, edo horretarako ezgaitzen duen lege-debekuren bat izatea, honako hauengatik gertatutakoak barnean direla:

– Sexu-bazterkeriagatik zigorren bat jaso izana, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera.

– Abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onarturiko Lan-arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko Legearen testu bateginak 46.1.b) eta 46.bis.1.b) artikuluetan xedatutako zehapen osagarri batek hala ezartzen badu, ebazpen irmo bidez.

d) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan xedatzen diren gainerako egoeraren batean egotea.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ez badu egiaztatzen 4. apartatuan xedatutako eskakizunen bat, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez frogatu beharko da; adierazpen hori eskabide-orrian jasota dago.

4. artikulua.– Prestakuntzaren hartzailleak.

Deialdi honen babesean diruz lagundutako proiektuetan parte hartu ahal izango dute, eskusiboki, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan, beste enplegu-zerbitzu publiko autonomiko batean edo Gazte Bermerako Sistema Nazionalaren fitxategian enplegu-eskatzaille gisa izena emanda dauden emakume langabeek, baldin eta lan-kontratu bat egitea ahalbidetzen dien administrazio-egoera batean badaude.

Deialdi honen ondorioetarako, honako hauek sartuko dira langabeen taldean: lanaldi partzialeko kontratu batekin ari diren langileak, baldin eta beren lanaldia lanaldi osoz aritzen den pertsona batek duenaren herena baino laburragoa bada –konparagarriak izan behar dute–.

5. artikulua.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.– Prestakuntza-ekintza bakoitza finantzatzeko zenbatekoa partaidetako eta prestakuntza-orduko kostuaren arabera finantzatuko da, deialdi honen Espezialitate Programagarrien Eranskinean aurreikusitako modulu ekonomikoei jarraikiz.

Modulu ekonomiko bakoitzak hiru ditu: horietako bi zuzeneko kostuei dagozkienak –langileak (A) eta funtzionamendua (B)– eta hirugarrena zeharkako kostuei (C) dagokiena –kostu zuzenei dagozkien moduluen baturari % 10eko ehunekoa aplikatuz kalkulatu–.

2.– 2. artikuluko B apartatuan zehazten diren merkatua aztertzeke eta emakumeen partaidetza sustatzeko jardueri dagokienez, dirulaguntzaren zenbatekoa 3.600 eurokoa izango da prestakuntza emateko eta kontratazioak egiteko proiektu bakoitzeko.

Dirulaguntza hori jasotzeko eskubideari eusteko, kontratu bakoitzaren benetako iraupena 68 eguneko izango da gutxienez, eta laguntzaren azken likidazioan egiaztatuko da.

3.– Deialdi honen babesean egindako lan-kontratuetan, gutxienez 6 hilabeteko lanaldi osoko kontratu bakoitzeko dirulaguntzaren zenbatekoa 8.000 eurokoa izango da Gizarte Segurantzako kotizazioan hobaririk edo murrizketarik ez duten kontratuen kasuan, eta 6.650 eurokoa Gizarte Segurantzako kotizazioan hobaria edo murrizketa duten kontratuen kasuan.

Kontratua 6 hilabete amaitu baino lehen amaitzen bada, 17.2 artikuluan aurreikusitako moduan likidatuko da dirulaguntza.

6. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Maskulinizatutako lanpostuetan emakume langabeei prestakuntza emateko eta kontratazioak egiteko proiektuetarako dirulaguntza-eskabideak elektronikoki izapidetuko dira, Lanbide-Euskal

Enplegu Zerbitzuaren (LanF) prestakuntza-aplikazio informatikoaren bidez, prestakuntza-ekintzak eta partaidetza sustatzeko eta merkatua aztertzekeo jarduerak egiteko.

Aplikazio horretara sarbiderik ez duten erakundeek edo enpresek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren web-orriaren bidez eskatu ahal izango dute: <https://www.lanbide.euskadi.eus/prestakuntza/-/informazioa/erakundeen-erregistroa/>

Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa (izapidetze elektronikorako jarraibideak ematen dituen) helbide honetan egongo da eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/servicios/1113701>

Eskabide bakarra aurkeztuko da hura osatzen duten prestakuntza-ekintzak egiteko eta merkatua aztertzekeo nahiz bertako partaidetza sustatzeko jarduerak egiteko dirulaguntzak eskatzen direneko prestakuntza- eta kontratazio-proiektu bakoitzeko.

Eskabide honekin batera, 8. artikuluan aurreikusitako balorazio-irizpideak aplikatzeko, irizpide horiek egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko da, salbu eta eskabidean bertan jasotakoak edo Lanbidek (2021eko Lanbideren orientazio-erakunde laguntzailea) egiazta ditzakeenak. Kasuan kasuko erakundeak 11/2014 Dekretuan araututako Emakunderen bereizgarria duela egiaztatzekeo, Emakunderen erakunde laguntzailearen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

2.– Lan-kontratuak egiteagatiko dirulaguntza-eskabideak elektronikoki eta banaka izapidetuko dira egindako kontratu bakoitzeko (eskabide bat kontratu bakoitzeko), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren prestakuntzako aplikazio informatikoaren bidez (LanF).

Aplikazio horretara sarbiderik ez duten erakundeek edo enpresek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren web-orriaren bidez eskatu ahal izango dute: www.lanbide.euskadi.eus

Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa (izapidetze elektronikorako jarraibideak ematen dituen) helbide honetan egongo da eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/servicios/1113702>

Eskabide honekin batera, dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

a) Egindako lan-kontratuaren kopia, aldi baterako kontratuen hasiera-data eta amaiera-data adierazita.

b) Langileen legezko ordezkariari idatziz igorritako jakinarazpena, egindako kontratazioari buruz, LANF aplikazioan emandako ereduaren arabera, edo, bestela, eskabidean bertan apropos egindako adierazpena, langileen legezko ordezkariarik ez duela xedatzen duena.

3.– Eskabidea elektronikoki izapidetu ahal izango da ordezkari baten bidez. Horretarako, ordezkariak inskribatu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Ahalordeen erregistroan, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkariak>

4.– Eskabideak ez baditu baldintza guztiak betetzen, enpresa edo erakunde interesdunari jakinaraziko zaio 10 egun balioduneko epea duela, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, izandako hutsune edo akatsa konpontzekeo, edo aurkeztu beharreko dokumentuak aurkeztekeo. Hori egingo ez balu, eskaerari uko egiten diola ulertuko da, horretarako beharrezkoa den ebazpena eman eta gero.

5.– Honako hauek izango dira dirulaguntza-eskabideak aurkeztekeo epeak:

a) Kontratazio-konpromisoa duten prestakuntza-ekintzetarako eta partaidetza sustatzeko eta merkatua aztertzekeo jardueretarako, epea deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2021eko urriaren 29an amaituko.

b) Lan-kontratueterako, epea hilabetekoa da, lan-kontratua hasi eta hurrengo egunetik aurrera, eta, nolana ere, 2022ko urriaren 28a baino lehen amaituko da.

7. artikulua.– Prozedura eta ebazpena.

1.– Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Zuzendaritzak du proiektuak emateko prozedura izapidetzeko eskumena, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak, berriz, ebaztekoa.

2.– Partaidetza sustatzeko eta merkatua aztertzekeo jarduerak eta prestakuntza-ekintzak egiteko dirulaguntza emateko prozedura ondoz ondoko norgehiagoka izango da.

2.1.– Eskabideek deialdi honetako eskakizunak betetzen dituztela eta 8. artikuluan aurreikusitako balorazio-irizpideen arabera ezarritako gutxienekeo puntuazioa gainditzen dutela egiaztatutakoan, ordenan emango dira laguntzak, espedientea osatzen den unearen arabera, 1. artikuluko 2. apartatuan jarduketa horietarako aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura amaitu arte.

Hasierako aurrekontu-zuzkidura eta balizko handitzea amaitu ondoren, geratzen diren eskabideei ezezkoa emango zaie, eta EHAA n argitaratuta emango da horren berri, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren ebazpen bidez.

2.2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena emango du, eta banan-banan jakinaraziko du, bitarteko telematikoen bidez.

2.3.– Eskabideak ebazteko eta ebazpenak jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, eskabide telematikoa LanF aplikazioaren bidez erregistroan sartzen den egunetik aurrera. Epe hori igarotakoan erakunde edo enpresa interesdunari ebazpena jakinarazi ez bazaio, dirulaguntza-eskabidea ezetsi dela ulertuko da.

3.– Lan-kontratuak egiteagatik deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak emateko prozedura ondoz ondoko norgehiagoka izango da.

3.1.– Eskabideek deialdi honetako eskakizunak betetzen dituztela egiaztatutakoan, ordenan emango dira laguntzak, espedientea osatzen den unearen arabera, 1. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura amaitu arte.

Hasierako aurrekontu-zuzkidura eta balizko handitzea amaitu ondoren, geratzen diren eskabideei ezezkoa emango zaie, eta EHAA n argitaratuta emango da horren berri, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren ebazpen bidez.

3.2.– Lan-kontratuak egiteagatik ez da dirulaguntzarik emango, prestakuntza-proiektuari dagozkion prestakuntza-ekintzak egiteagatik dirulaguntza eman ez bada.

3.3.– Ebazpena bitarteko telematikoen bidez jakinaraziko da.

3.4.– Eskabideak ebazteko eta ebazpenak jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, eskabide telematikoa LanF aplikazioaren bidez erregistroan sartzen den egunetik aurrera. Epe hori igarotakoan enpresa interesdunari ebazpena jakinarazi ez bazaio, dirulaguntza-eskabidea ezetsi dela ulertuko da.

4.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren ebazpenek amaiera ematen diote administrazio-bideari, eta, haien aurka, aukerako berraztertzekeo errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

5.– Publikotasunaren printzipioa betetzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren ebazpenez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian emango da jakitera zer enpresak jaso duten dirulaguntza-deialdi honen babesean eta zenbateko laguntza jaso duten.

6.– Onuradunei dirulaguntzak eman eta, hala dagokionean, ordaintzea baldintzapean dago; hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetze-fasean dagoen edozein itzulketa- edo zigor-prozedura amaitzearen baldintzapean.

8. artikulua.– Proiektuak baloratzeko irizpideak.

1.– Prestakuntza emateko eta kontratazioak egiteko proiektuak garatzeko dirulaguntzak amaierako puntuazio baten arabera emango dira. Puntuazio hori proiektu-eskabide bakoitzerako zehazten diren helburuen balioespenean eskuratutako puntuen batuketaren emaitza izango da, jarraian zehazten diren ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta:

Proiektuaren kalitatearen eta koherentziaren berariazko balioespena, eskaeran oinarritzen dena. 30 puntu, gehienez.

Ebaluatu beharreko kontzeptuak	Puntuak
Hurbileko lan-merkatuaren (eskualdekoa eta Euskal Autonomia Erkidegokoa) behar espezifikoaren diagnostikoa aurkeztu du, eta xede-kolektiboa eta kontratuak egiteko lan-okupazioak identifikatu ditu: 4 puntu.	4
Partaideen hautaketarako eta programaren hedapenerako protokoloa: <ul style="list-style-type: none"> • Proiektua hedatzeko estrategia aurkeztu du: 5 puntu. • Proiektua Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2021eko orientazio-erakunde laguntzaile batek eskatu edo eman du: 3 puntu. Enpresa bat eskatuz gero, apartatu honetako 3 puntuak emango dira, berez. 	8
Prestakuntza- eta kontratazio-proiektuaren garapena eta genero-ikuspegia: <ul style="list-style-type: none"> – Prestakuntza-ibilbidea: <ul style="list-style-type: none"> • Profesionaltasun-ziurtagiri osoa eskuratzeko aukera aurreikusi du: 3 puntu. • Beste espezialitate kualifikatzaile batzuk sartu ditu: 2 puntu. • Prestakuntza-ekintza gakoak eta zeharkakoak sartu ditu: puntu 1. – Prestakuntza ematen duen erakunde Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako erakunde laguntzaile da, Emakunderen bereizgarria duena, otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuan araututakoaren arabera: 2 puntu. Enpresa kontratatzaileak berak eskatutako eta emandako proiektuaren kasuan, apartatu honetan 2 puntu aplikatuko dira. 	8
Lan-prospekzioko estrategia: <ul style="list-style-type: none"> • Lan-merkatua aztertzeko eta enpresetan hutsik dauden lanpostuak bilatzeko estrategia aurkeztu du: 4 puntu. • Lanbide horietan emakumeak sartzeko premiekin harremanetan jarri diren enpresen datu zehatzak eman dira, bai eta enpresek edo klusterrek adierazi dituzten eta bete gabe dauden beharren datuak ere, proiektuan jorratuko direnak: 6 puntu. 	10

2.– Erakunde eskatzaileak 15 puntu lortu beharko ditu gutxienez artikuluko honetako guztizko puntuazioan, dirulaguntza eskuratu ahal izateko. Puntuazio hori lortzen ez duten proiektuen eskaerak ezetsi egingo dira.

9. artikulua.– Proiektuetan parte hartuko duten emakumeak hautatzea.

1.– Honako hauek izan daitezke prestakuntza-ekintza bakoitzean parte hartuko duten emakumeak:

a) Enplegu-eskatzaileak (eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenak), baldin eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Orientazio Zerbitzuek prestakuntza-ekintza egitea agindu badiete haien prestakuntza-ibilbidearen barruan.

b) Nire Lanbidenet-en bitartez ikastaro batean izena eman duten enplegu-eskatzailleak, beren prestakuntza-kontuko prestakuntza-aholkularitzaren bidez.

2.– Profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko prestakuntza-ekintzetan parte hartu nahi duten emakumeek profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuaren 20. artikuluan xedatutako baldintzak bete behar dituzte, lanbide-kualifikazioaren 2. eta 3. mailetarako. Era berean, prestakuntza-espezialitateen katalogoan jasotako prestakuntza-espezialitateen bateko prestakuntza-ekintzetan parte hartu nahi dutenek katalogoan espezialitate bakoitzerako ezarritako sarbide-baldintzak bete behar dituzte.

3.– Ikastaroetan parte hartuko duten ikasleen azken hautaketa erakunde onuradunak egingo du, aurrez izena eman duten hautagaien artean. Horretarako, prestakuntza emango duen erakundeak sarbidea izango du inskribatutako hautagaien datuetara, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren prestakuntza-kudeaketarako aplikazioaren bidez (LanF). Erakundeak prestakuntza-ekintzak hasi aurretik eta dagozkion bermeekin egingo du hautaketa-prozesua.

Behar duten prestakuntza-ekintza guztietan, hautapropa bat ere egingo dute, erakundearen instalazioetan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikariek aurrez adostuta edo baimenduta, ekintza behar bezala aprobetxatzen dela ziurtatzeko eta kualifikazio-ekintzen helburuak lortzeko ezinbestekoa den aurretiazko ezagutza-maila erreala zehazteko. Proba hori LanF aplikazioaren dagokion apartatuan erantsiko da, prestakuntza-ekintzak gauzatzeari buruz ematen diren jarraibideen arabera.

4.– Profesionaltasun-ziurtagirien prestakuntza-ekintzetako emakume partaideak aukeratzeko hautapropa hori egin eta gero, proba egiten bada, eta etengabeko ikaskuntza sustatze aldera, honela jokatuko da:

1) Profesionaltasun-ziurtagiri oso bat ematen bada, egiaztatutako prestakuntza-moduluren bat duten emakumeek parte hartu ahal izango dute. Emakumeek modulu horien prestakuntzara joango dira, baina ezin izango dira modulu horietan ebaluatu, gaindituta dituztelako eta prestakuntza-ekintza honetarako salbuetsita daudelako.

2) Prestakuntza-modulu solteak programatu badira, egiaztatutako prestakuntza-moduluren bat duten emakumeek izango dute lehentasuna prestakuntza-ekintzan parte hartzeko, beren prestakuntza-ibilbidea osa dezaten. Horien artean, lehentasuna izango dute profesionaltasun-ziurtagiriko gainerako moduluak gaindituta dituzten emakumeek.

5.– Prestakuntza-ekintzara sartzeko eskakizunak betetzen dituzten eta, aurreko apartatuan deskribatu bezala, dagokien hautaketa-prozesua gainditzten duten emakume langabeen artean, aurretik enplegurik izan ez duten emakumeei emango zaie lehentasuna.

6.– Emakume batek proiektu batean baino ezin izango du parte hartu.

7.– Hautaketa bukatu ondoren, erakunde onuradunek hautaketaren emaitza jakinaraziko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, LanF kudeaketarako aplikazio informatikoaren bidez, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak berariaz emandako jarraibideak aintzat hartuz.

8.– Hautatuak izan diren emakumeen eta ikastaroetan parte hartzeko erreserba-egoeran gelditu direnen zerrendak erakutsi behar dituzte prestakuntza-erakundeek beren instalazioetan, prestakuntza-ekintzak abiarazi baino 24 ordu lehenago gutxienez, eta hautagaiei alde aurretik adierazi zaien leku batean. Horrekin batera, prestakuntza-ekintzak non, noiz eta zer ordutan egingo diren adierazi behar dute.

Iragarpen-bitarteko horiez gainera, egoki iritzitako bestelako bitartekoak ere balia ditzakete prestakuntza-zentroek ikastaroetako partaidetzaren berri emateko ikasleei.

10. artikulua.– Prestakuntza-ekintzetan parte hartuko duten emakumeen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Ikasleek doan egingo dituzte prestakuntza-ekintzak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz lagunduko baititu.

2.– Ikasleek aseguru-estaldura izango dute ikastaroetan edo haietara joateko bidean dituzten arriskueterako, Eusko Jaurlaritzak sinatutako aseguruak istripuak eta erantzukizun zibila estaliko baititu.

3.– Partaideek ikastaroaren egutegia, prestakuntza-ekintzaren programa eta ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko dokumentua jasoko dituzte lehen eskola-egunean, eta jaso izanaren agiria sinatuko dute.

Halaber, prestakuntza amaitu baino hilabete lehenago, ondorengo kontratazio posibleari eta lan-kontratuen baldintza zehatzei buruzko informazioa jasoko dute (lantokiaren kokapena, lanbide-kategoria, ordainsaria, lanaldia eta lan-ordutegia, kontratuaren iraupena...).

4.– Ikasleek prestakuntza-ekintzetara joan beharko dute, eta haiei etekina atera beharko diete. Horretarako, enpresa edo erakunde onuradunek eguneroko bertaratze-partea egin beharko dute, eta irakasleak zein partaideek sinatu beharko dute. Profesionaltasun-ziurtagirien kasuan, eguneroko parte hori bereiz egingo da prestakuntza-modulu bakoitzeko.

5.– Ikasleek ezingo dute ikastaro batean baja eman beste prestakuntza-ekintza bat hasteko. Ezin izango dute jarduera utzi harik eta bukatzen den arte, baina salbuespena izango dira honako kasu hauek: enplegua aurkitu badute, eta horrek prestakuntza-ekintzara joatea eta probetxua ateratzea galarazten badie, edo bat-bateko familia-egoera larriren bat sortzen bazaie. Jarduera justifikaziorik gabeko beste arrazoiren batengatik utziz gero, gerta liteke emakume hori lehentasun-nezkoa ez izatea etorkizuneko deialdietako prestakuntza-ekintzetan.

11. artikulua.– Ikasleak baztertzeko arrazoiak eta prozedura.

1.– Honako hauek izango dira ikasleak baztertzeko arrazoiak:

a) Justifikatu gabeko hiru asistentzia-faltatik gora egitea hilabetean.

b) Prestakuntza-ekintzaren iraupen osoaren % 25etik gorako asistentzia-faltak biltzea, arrazoa edozein dela ere, justifikatuta egon zein ez.

c) Prestakuntza-ekintzari probetxurik ez ateratzea, edo ekintza behar bezala egitea eragozten duen jokabide desegokia izatea, osasun- eta higiene-arauak ere kontuan hartuta.

2.– Hau izango da ikasleak baztertzeko prozedura:

Prestakuntza-zentroak prestakuntzako teknikariari jakinaraziko dio baztertzeko arrazoietako bat gertatu dela, horretarako ezarri den eredia erabiliz. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak arrazoi hori aztertu ondoren, Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko zuzendariak baztertzeko-prozedura hasteko erabakia hartuko du. Ikaslea baztertzeko proposamenaren arrazoa azalduko da erabaki horretan, eta ikasleak bost egun balioduneko epea izango du alegazioak aurkezteko. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak ebatziko du prozedura, gehenez hamabost eguneko epean. Egoerak hala eskatzen badu, baztertzeko-prozedurari ekiteko erabakian behin-behineko neurriak har daitezke prestakuntza-jardueraren jarraipen egokia berma-

tzeko. Neurri horietako bat izan daiteke ikaslea ikastarotik behin-behinekoz baztertzea, prozedura abiatzeko erabakia jakinarazten zaionetik prozedura ebazten den bitartean. Ebazpenean adieraziko da zein errekurtsio aurkeztu daitekeen.

Asteren batean ikasleren baten asistentzia-faltak prestakuntza-ekintzaren ordu-kopuruaren % 25 baino gehiago badira, edo justifikatu gabeko hiru asistentzia-falta baino gehiago egiten baditu hilabeteen, prestakuntza-zentroak horren berri emango dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Zuzendaritzari, ikaslea baztertzeko prozedura has dezan. Modulu oso bat geratzen bada egiteko, eta % 25etik gorako asistentzia-faltak arrazoi justifikatu batengatik gertatu badira (adibidez, gaixotasuna izatea edo lanean hastea), emakume horrek geratzen den modulua egiteko aukera izatea aztertu ahal izango da.

Ikasleren batek prestakuntza-ekintzara joateari uzten badio eta asistentzia-falten % 25 gaindizen baldin badu, zentroak egoera horren berri emango dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, eta ofizioz emango zaio baja, baztertze-prozedura erabili beharrik gabe.

12. artikulua.– Prestakuntza-ekintzak gauzatzea eta lortutako konpetentziak egiaztatzea.

1.– Dirulaguntzaren enpresa edo erakunde onuradunak deialdi honetan ezarritakoaren arabera eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako ereduak aintzat hartuta gauzatu beharko ditu prestakuntza-ekintzak. Erakunde autonomo honen prestakuntzarako aplikazio informatikoa (LanF) erabiliko du prestakuntzaren hasiera jakinarazteko (hasiko den eguna baino 7 egun lehenago gutxienez), bai eta gerora izan daitekeen edozein aldaketaren, prestakuntza-ekintzak bukatzearen eta partaideen bertaratzea kontrolatzearen berri emateko ere, prestakuntza-orduetara bertaratu izana kontrolatzeko orrien bidez (ikasleek sinatuko dituzte).

Oro har, eta aurkako jarraibiderik ematen ez bada, gehienez ere 7 egun balioduneko epean egin beharko zaizkio jakinarazpenak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari. Prestakuntza-ekintzak ezingo dira hasi aldezturik Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ez badu LanF aplikazioan Hasierako Komunikazioa baimendu.

2.– Deialdi honen barruko prestakuntza emango duten prestatzaileek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren baimena beharko dute, eta prestatzaileen fitxategian sartu beharko dira, indarreko araudian ezarritako baldintzen arabera.

3.– Dirulaguntza jasotzen duten ikasleek gain, beste bi joan daitezke prestakuntza-ekintzara, dirulaguntza jasotzeko eskubiderik gabe, hasierako komunikazioan hartarako eskabidea egiten duten prestakuntza-erakundeetan, betiere instalazioak eta ekipoak badituzte eta ikasle guztientzat bermatzen badira berdintasun-baldintzak. Erabilgarri diren instalazioak eta ekipamenduak egiaztatutakoan emango da baimena; profesionaltasun-ziurtagirien kasuan, eskatutako partaideen kopurua ere egiaztatuko da.

4.– Langile langabeek ezingo dute prestakuntza-ekintzetan egunean 5 ordu eta erdi baino gehiagoz parte hartu. Nolanahi ere, asteen ez dira egingo 27 ordu eta erdi baino gehiago.

5.– Prestakuntza-erakundeek eta, hala badagokio, enpresek prestakuntza-ekintzak programatzeko ordutegiak ezartzean, prestakuntza emakumeen bitzita pertsonalarekin uztartzeko era aurkitu beharko dute.

Prestakuntza-ekintza hasitakoan, behar bezala emango da, eta erakunde prestatzaileak ezingo du aldi baterako eten, ezinbesteko kasuan izan ezik, behar bezala justifikatuta eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak onartuta.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak prestakuntza-ekintza bat kautelaz eten ahal izango du, baldin eta prestakuntza emateko ohiko garapenean eragin nabarmena duten anomaliak hautematen badira.

6.– Erakunde onuradunek honako hauek emango dizkiete, gutxienez, partaide guztiei prestakuntza-ekintzetan:

– Eskuliburu bat, argitaratua edo euskarri informatikoan, espezialitateko eduki guztiak bilduko dituen.

– Ikastaroa behar bezala egiteko behar den idazmahaiko materiala.

– Beharrezkoak diren babes-elementuak.

Era berean, zer eskubide eta betebehar dituzten azalduko diete ikasleei, bai eta deialdi honen 10. eta 11. artikuluetan araututako kanporatzeko arrazoiak eta prozedurak ere.

7.– Ikasleren batek prestakuntza-ekintza uzten badu, haren lekuan beste partaide bat sartu ahal izango da. Prestakuntza-jardueraren iraupenaren ehuneko 25era iritsi baino lehen onartuko da ordezte hori, salbu eta profesionaltasun-ziurtagiriei loturiko prestakuntza-jarduerak badira; kasu horretan, ordezte prestakuntza-jarduera hasi eta lehen bost eskola-egunetan gertatzen bada onartuko da soilik, betiere ehuneko hori gainditu ez bada.

Hasita dagoen prestakuntza-ekintza bati eransten zaizkion ikasleek maila jakin bat izan beharko dute, ikastaroari etekina ateratzeko gaitasuna badutela eta ikastaroaren garapen normala ez dutela eragotziko bermatzeko adinakoa. Hala, bada, prestakuntza-ekintzari etekina ateratzeko eta ekintza normaltasunez garatzeko, partaideen hautaketa-prozesuak irizpide batzuk ezarri beharko ditu, ikasleek prestakuntza-ekintza behar bezala jarraitzeko gutxieneko maila eskagarria dutela bermatze aldera.

8.– Prestakuntza-ekintzan parte hartzen duten emakume langabeei dagokienez, batik bat langabeziako prestazioa edo sorospena edota diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten emakumeen kasuan, partaide horien uko egiteak, ez agertzeak eta prestakuntza-ekintzak uzteak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari lehenbailehen jakinarazi beharko dizkiote prestakuntza emateko ardura duten erakunde onuradunek, egoera horien kausak adierazita.

9.– Prestakuntzaren xedea ez bada profesionaltasun-ziurtagiria lortzea, partaide bakoitzari asistentzia-ziurtagiria edo diploma emango zaio, prestakuntza gainditu badu eta ebaluazioa positiboa izan bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako ereduaren arabera. Dokumentu horretan, gutxienez datu hauek adieraziko dira: prestakuntza-ekintzaren izena, prestakuntza-edukiak, zer modalitatetan eman den, zer egunetan hasi eta amaitu den, eta ikasleak guztira jaso dituen prestakuntza-orduak.

10.– Prestakuntzaren xedea profesionaltasun-ziurtagiriak lortzea bada, ikasleak egiten duen modulu bakoitza ebaluatuko da, ikasketaren emaitzak eta, horrenbestez, lanbide-kompetentziak eskuratu direla egiaztatzeko.

Ebaluazioa sistematikoki egingo da, aldez aurreko plangintza baten arabera, zeinean honako hauek adieraziko baitira, gutxienez, modulu bakoitzarentzat: ebaluazioa zer egunetan egitea kalkulatu den, zer tokitan egingo den, zer ebaluazio-tresna erabiliko diren, eta zenbat denbora iraungo duen (LanF aplikazio informatikoan eskura dagoen ereduaren arabera). Ebaluazio-tresna horiek eta partaide bakoitzak egindako probak eskaneatu egingo dira, eta aplikazio informatikoan gordeko dira.

Prestakuntza-moduluetan egiaztatu beharreko ikasketaren emaitzak haien konpetentzietan eta ebaluazio-irizpideetan jasotako ezaguerei eta trebetasun praktikoei dagozkienak izango dira; horrela, osotasunean, konpetentzia profesionalak eskuratu direla egiaztatu ahal izango da.

Konpetentzia-unitateen egiaztapena jasotzeko, emaitza positiboarekin gainditu beharko dituzte haiekin lotutako prestakuntza-moduluak, «gai» direla adierazita.

Prestatzaileek txosten batean jasoko dituzte ikasleek prestakuntza-modulu bakoitzaren ebaluazioan lortutako emaitzak. Txosten horretan adieraziko da ikasle bakoitzaren jarduna, aplikatutako ebaluazio-tresnen arabera, egindako zuzenketak eta lortutako puntuazioak jasota (LanF aplikazio informatikoan eskura dagoen ereduaren arabera).

Modulua eman eta gero, ebaluazio-akta bete beharko da LanF aplikazio informatikoaren bidez, partaide bakoitzak lortutako emaitzarekin: «gai» edo «ez gai».

Emakume partaideren batekin lantokiko prestakuntza praktikoko modulua eginez gero, lantokiko prestakuntza praktikoko modulua egiten den bitarteko ikasleen jarraipena eta ebaluazioa batera egingo dute prestakuntza-zentroak eta enpresak hautaturiko tutoreek. Modulu hori gainditzaren duten ikasleek ziurtagiri bat jasoko dute LanF aplikazio informatikoaren bitartez.

Ikastaroa bukatzean, gainditutako prestakuntza-moduluei dagokien Egiaztapen Partzial Metagarria emango zaie partaideei, eta profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko prozedura hasiko da, osorik burutu badute.

Ikasleak emaitza negatiboekin bukatzen badu ikastaroa, asistentzia-ziurtagiri bat emango zaio, eta, hala dagokionean, gainditu dituen prestakuntza-moduluen Egiaztapen Partzial Metagarria edo prestakuntza-modulu baten barruan zer prestakuntza-unitate gainditu dituen zehazten duen ziurtagiria.

Profesionaltasun-ziurtagiriei dagozkien prestakuntza-ekintzak ematen dituzten prestakuntza-erakundeek honako datu edo agiri hauek sartu beharko dituzte Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren LAN-F aplikazioan:

- Ikastaroa hasi aurreko 7 egun balioduneko epean:
 - Ebaluazioaren plangintza, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako ereduaren arabera, LanF aplikazio informatikoaren bitartez eskainitakoa.
 - Erabili beharreko ebaluazio-tresnak, horiek zuzentzeko eta puntuatzeko dagozkien euskarriekin.
- Ikastaroa bukatu ondoko 7 egun balioduneko epean:
 - Ikasleen emaitzak biltzen dituen dokumentazioa LanF aplikazioan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako ereduaren arabera (LanF aplikazio informatikoaren bitartez eskuratu ahalko da eredu hori).
 - Ebaluazio-aktak betetzea.

11.– Dirulaguntzen prestakuntza-erakunde onuradunek zuzenean gauzatuko dituzte prestakuntza-ekintzak, eta ezingo dute hirugarrenik azpikontratatu horretarako. Horri begira, ordea, dirulaguntza jaso duen prestakuntza-ekintza emateko irakasleak kontratatzea ez da azpikontratatziotzat hartuko. Irakasleak kontratatzea pertsona fisikoak kontratatzea soilik dela ulertzen da.

Onuraduna enpresa bat izanez gero, bitarteko propioak baliatuta eman dezake prestakuntza, edo kontrata dezake, helburu horretarako egoki izanez gero. Halaber, behin bakarrik azpikontratatu

ahal izango du prestakuntza-ekintza erakunde egiaztatu batekin eta/edo Lanbidek kudeatutako prestakuntza-erakundeen erregistroan inskribatuta dagoen batekin, eta ez da azpikontrataziotzat joko irakasleak (pertsona fisikoak) kontratatzea diruz lagundutako prestakuntza emateko.

Kontrataziora joz gero, enpresa onuradunak hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, kontratuen zenbatekoak gainditzen badu Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 118. artikuluan kontratu txikientzat ezarritako zenbatekoen muga, ezaugarri bereziak izatearen ondorioz zerbitzu hori ematen duten erakundeen kopurua merkatuan nahikoa ez den kasuetan izan ezik. Aurkeztutako eskaintzen arteko aukeraketa eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideen arabera egingo da, eta berariaz justifikatuko da memoria batean, aukeratutakoa ez bada proposamen ekonomiko onena.

Azpikontratazioaren kasuan, enpresa onuradunak alde aurreko baimena eskatu beharko dio organo emaileari, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29. artikuluko 3. eta 7.d) apartatuetan aurreikusitako kasuetan. Horretarako, eskabidearekin batera formalizatuko den kontratua aurkeztuko da. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak 20 eguneko epean ebatziko du baimena, eskaera Lanbideren erregistroan sartu den egunetik aurrera. Hala izan ezean, baimena emantzat joko da.

Nolanahi ere, 11. apartatu honetan aurreikusi ez den guztian zuzenean aplikatuko da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. eta 31.3 artikuluetan xedatutakoa.

13. artikulua.– Lanekoak ez diren lanbide-praktikak.

1.– Prestakuntzaren helburua profesionaltasun-ziurtagiriak lortzea ez bada, lanekoak ez diren lanbide-praktikek ezingo dute iraun, oro har, 200 ordu baino gehiago, eta prestakuntza-ekintza amaitu osteko bi hilabeteetan hasi beharko dira gehienez. Egungo deialdiaren 2. artikuluko A.d) apartatuan adierazitakoak baldintzatuko du epe hau.

2.– Prestakuntzaren helburua profesionaltasun-ziurtagiria lortzea bada:

– Praktiken iraupena eta edukia bat etorriko dira lantokiko prestakuntza praktikoko modulua-ekin, dagokion profesionaltasun-ziurtagiria arautzen duen Errege Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoaren arabera.

– Prestakuntza-erakundeek lantokiko prestakuntza praktikoko modulua egitea aurreikusi beharko dute, ikasten ari diren moduluarekin lotutako lanetan, ikastaroetan parte hartzen duten ikasle guztientzat, salbu eta ikasleren bat Profesionaltasun Ziurtagiriak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuaren 5.bis artikuluan xedatutako salbuespen-egoera batean ez badago.

– Lehentasunez, lanbide-praktikak gainerako prestakuntza-moduluak bukatutakoan egingo dira, aurrekoak emaitza positiboarekin gainditu badira, betiere; horrela, azken prestakuntza-modulua bukatu eta lau hilabeteko gehieneko epean hasi behar dira lanbide-praktikak. Egungo deialdiaren 2. artikuluko A.d) apartatuan adierazitakoak baldintzatuko du epe hau.

Salbuespenez eta justifikatuta baldin badago, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak baimena eman ahal izango du lanbide-praktikak gainerako prestakuntza-moduluekin batera egin ahal izateko. Prestakuntza-ekintza emaitza positiboekin gainditu duten ikasle guztiek egin ahal izango dute prestakuntza praktikoko modulua lantokian, haien administrazio-egoera edozein izanda ere.

Praktikak prestakuntza-ekintza egiten ari diren bitartean hasi dituzten eta azken emaitza negatiboa lortzen duten ikasleek praktiketan jarraitzeko aukera izango dute. Prestakuntza-ekintza uzteak, berriz, hari lotutako lantokiko prestakuntza praktikoko modulua amaitzea ekarriko du.

– Profesionaltasun-ziurtagiri osoa ematen ez bada, lanekoak ez diren praktikak egin ahal izango dira, baina ez lantokiko prestakuntza-modulua, langileak gainerako prestakuntza-moduluak egiaztatuta izan ezean.

3.– Lanekoak ez diren praktikak egiteko, enpresaren eta prestakuntza-erakundearen arteko akordio bat sinatuko da, eta akordio horren berri emango zaio praktikak egingo dituen emakumeari. Akordio horretan, hauek azaldu beharko dira: praktiken edukia, iraupena, praktikak egiteko tokia eta ordutegia, eta praktiken jarraipena eta ebaluazioa egiteko tutoretza-sistema. Praktikak hasi baino lehen, enpresako langileen legezko ordezkariari emango zaie akordio horren berri. Baldintza hori bete den egiaztatzeko, langileen legezko ordezkariak akordioari buruzko informazioa jaso dutela adierazteko agiria erantsi beharko da (eredu ofiziala erabili beharko da horretarako, LanF aplikaziotik hartuta). Gainera, parte hartzen duten ikasleen zerrenda bat ere erantsi beharko da.

4.– Praktikak Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan egin beharko dira, hori eragozten duten eta behar bezala justifikatuta dauden arrazoiak daudenean izan ezik, eta aldeztatik Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko zuzendariak baimendu behar du.

5.– Ikasleek ezin izango dute kontratu-harremanik izan praktikak egingo diren enpresa, instituzio edo erakunde publiko edo pribatuarekin, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak horretarako baimena eman ezean.

6.– Praktiken eguneko lanaldia ezin izango da 8 orduetik gorakoa izan.

7.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak praktiken akordioa baliozkotzea ezinbesteko baldintza da, eta lantokietako prestakuntza-modulua hasi aurretik egin behar da. Hori betetzen ez bada, nahitaezko baimena ez duten praktikak baliogabetu ahal izango dira.

14. artikulua.– Prestakuntza-ekintzen jarraipena eta kontrola.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, prestakuntza emango duen erakundearekin lankidetzan, prestakuntza-ekintzen jarraipena eta kontrola egingo ditu. Hori eskakizunak eta alderdi formalak betetzen direla egiaztatzeaz eta prestakuntzaren emaitzez harago doan lana da, eta kalitatea bermatzeko balio izango du. Horretarako, prestakuntza-ekintzak garatzen diren zentroa bisitatuko du, eta idazki bidez jaso beharko du dirulaguntza onartzeko ezarritako baldintzak betetzeko beharra mantentzen dela (instalazioak, kide-kopurua eta ekipamendua, baliabide didaktikoak, irakasleak...) edo, hala badagokio, zer-nolako irregulartasunak hauteman dituen, ongi zehaztuta, arazoak konpon ditzaten.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua ikastarora bi bisita egiten ahaleginduko da, gutxienez:

A) Hasieran: bisita horretan, zeregin hauek beteko dira:

A.1.– Ikastaroaren eta haren edukien eta garapenaren inguruko datu guztien berri emango die ikasleei, baita beren eskubide eta betebeharren berri ere, eta zalantza eta kontsulta guztiak argituko ditu. Zehazki, ekintza honen kontratazio-konpromisoaren eta haren ezaugarrien berri emango du.

A.2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Europako Gizarte Funtsaren finantzaketaren ondoriozko komunikazioa betetzen dela egiaztatuko du.

A.3.– Partaideei beren tutoreen berri emango die, ondorio pertsonaletarako eta prestakuntza-ekintzaren kudeaketarako.

A.4.– Parte hartzen duten emakumeei prestakuntza-kontuari buruzko informazioa emango die, Nire Lanbidenet-en bidez nola eskura daitekeen erakutsiko die, eta arlo hauekin lotuta dituen erabilerak azalduko dizkie: curriculum inprimatzea; egiaztapen-eskaerak; prestakuntzaren eta lan-esperientziaren historia; egingo duten ikastaroaren eremuan lan-merkatua nola dagoen; eta kompetentzia profesionalen arloan informazio- eta orientazio-sistema hori ulertzen eta behar bezala erabiltzen lagunduko dien beste edozein informazio garrantzitsu, horrela, bizialdi osoko ikaskuntzan erabakiak hartu ahal izan ditzaten.

B) Ikastaroaren amaieran: bisitan, zeregin hauek egingo dira.

B.1.– Ikasleei lagunduko die 15. artikuluko A apartatuan aurreikusitako azken gogobetetasun-inkesta telematikoki betetzen, diruz lagundutako zentroak horretarako jartzen duen aretoan, eta jakinaraziko die, jasotako prestakuntzaren eragina neurtzeko, telefonoz egingo zaiela inkesta berriz ere, prestakuntza amaitu eta 6 eta 12 hilabete bitarteko epean.

B.2.– Ikasleei orientazioa emango die jasotako prestakuntzak ematen dizkien aukerei buruz eta une horretan dituzten prestakuntza-ibilbideei edo enplegu/prestakuntzako beste ekintza batzuei buruz, lan-merkatura errazago sar daitezten.

Zenbait prestakuntza-ekintza lotuz prestakuntza-ibilbide bat osatzen denean, aurreko kasuan bezala bermatuko da ekintza-multzoa ematen ari den bitartean gutxienez bi bisita egingo direla, prestakuntza-ibilbidearen hasieran eta amaieran.

3.– Europar Batasuneko araudiak xedatzen duen moduan, Europako Gizarte Funtsak lagundutako finantzaketa duten prestakuntza-ekintzetan ikuskapen-bisitak egingo dira in situ, Europako funtsen partaidetzatik eratorritako eskakizunak betetzen diren egiaztatzeko.

4.– Prestakuntza-erakundeak inskribatzea edo egiaztatzea arautzen duen araudiak ezartzen duen bezala, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztapen-bisitak egingo ditu, in situ, deialdi honetan diruz lagundutako prestakuntza-ekintzen lagin batera, inskripzioa edo egiaztapena egiterakoan zentroak adierazi zituen baldintzak mantentzen diren ikusteko.

5.– Ikastaroa ematen duen zentroak, prestakuntza-ekintzaren % 25 egiten denean, ikastaroaren funtzionamendu egokiari buruzko erantzukizunpeko adierazpen bat beteko du LanF aplikazioan, eta egiaztatuko du homologazio-baldintzak eta Ikastaroaren Hasierako Komunikazioan adierazitakoa betetzen direla, bai eta une horretan ekintzan jarraitzen duten pertsonen kopurua ere.

6.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, prestakuntza-ekintzaren jarraipena egiteaz gain, auditoria- eta ikuskaritza-plan bat ezarri ahalko du, deialdian jasotako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eta diruz lagundutako ekintzak benetan zer baldintzatan gauzatzen diren jakiteko.

15. artikulua.– Prestakuntza-ekintzen ebaluazioa.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak deialdi honen babesean emandako prestakuntza-ekintza guztien kalitatea ebaluatuko du, ebaluazio-sistema misto bat baliatuz. Ebaluazio-sistema misto horrek bi iturritatik jasoko du informazioa:

A) Ikasleek betetako galdetegieta lortutako batezbesteko emaitzak, enplegurako prestakuntza-ekintzen kalitatea ebaluatzeko galdetegiak argitaratzen dituen Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren 2009ko apirilaren 27ko Ebazpenean xedatutakoaren arabera (2009ko ekainaren 11ko BOE). Galdetegi horiek ikasleek beteko dituzte, telematikoki. Prestakuntza emango duen erakun-

dearen edo enpresaren erantzukizuna izango da kalitatearen galdetegia betetzen dela ziurtatzea. Horretarako, prestakuntza-zentroak gela bat jarri beharko du partaideen esku, diruz lagundutako ikastaroa amaitzen duten ikasle adina ordenagailurekin, inkesta telematikoa bete ahal izan dezaten. Partaideek inkesta betetzen ez badute, prestakuntza-ekintzaren likidazioa murriztuko da, 17. artikuluan adierazitako moduan.

B) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikariak prestakuntza-ekintzaren bukaeran egindako bisitaldian emandako puntuak, «Prestakuntza-zentro/erakundeak emandako prestakuntzaren ebaluazioa» eredu-agiriarekin bat etorrita.

Nolanahi ere, emandako prestakuntza-ekintzen kalitatea ebaluatzeko, sintesi-adierazle bat egin beharko da prestakuntza-erakundeak emandako ekintza bakoitzerako. Sintesi-adierazle hori aipatutako bi informazio-iturrietan lortutako emaitzetatik abiatuta aterako da, formula honi jarraituz:

$$\text{Sintesi-adierazlea} = A \times 0,6 + B \times 0,4$$

A = ikasleek betetako galdetegietan lortutako batezbesteko puntuazioa Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren 2009ko apirilaren 27ko Ebazpenaren arabera, zeinaren bidez argitaratu ziren enplegurako prestakuntza-ekintzen kalitatea ebaluatzeko galdetegiak.

B = Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikariak emandako guztizko puntuazioa, LanF aplikazio informatikoaren bidez eskura jarriko den ereduaren arabera.

16. artikulua.– Dirulaguntzak ordaintzea.

1.– Proiektuaren partaidetza sustatzeko eta merkaturaz aztertzeko jarduerak egiteko nahiz prestakuntza-ekintzak gauzatzeko emandako dirulaguntza bi zatitan ordainduko da, haiek eskatu ondoren, honela:

a) Lehen ordainketa, onartutako dirulaguntza osoaren % 60koa, lehen prestakuntza-ekintza hasitakoan, 2021eko kredituaren kargura.

b) Bigarren ordainketa, guztizkoaren % 40raino, 2022ko konpromiso-kredituaren kargura, prestakuntza-jarduera amaitu ondoren eta lan-kontratu guztiak hasi eta 68 egun igaro ondoren, dirulaguntzak 17. artikuluan aurreikusitako moduan justifikatu eta likidatu direnean.

Prestakuntza-proiekturako dirulaguntzaren onuraduna lan-kontratuak egingo dituen enpresa bada, kontratu horiek hasi ondoren ordainduko da bigarren ordainketa.

2.– Egindako lan-kontratueterako emandako dirulaguntza 2022ko aurrekontuaren kargura ordainduko da, honela:

a) Lehenengo ordainketa, % 60koa, dirulaguntza ematen den unean.

b) Bigarren ordainketa, ordaintzeke dagoen dirulaguntzaren gainerakoagatik, kontratua hasi eta 6 hilabeteko epea igaro ondoren, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kontratatutako pertsonari alta eman zaiola egiaztatu ondoren.

Baldin eta, lan-kontratuaren hasiera-datagatik, ezin bada egiaztatu, 2022ko aurrekontu-ekitaldiaren itxiera-data baino lehen, kontratatutako langilearen altari eutsi zaiola hasierako 6 hilabeteko aldi osoan, dirulaguntzaren bigarren ordainketa egingo da aldez aurretik, geroago egiaztatu ahal izango den arren.

Diruz lagundutako aldia amaitu baino lehen langileak enpresan baja hartzen badu, 17. artikuluan aurreikusitako moduan likidatuko da.

3.– Ordainketa aurreratuen zenbatekoa, banaka edo aurreko ordainketekin batuta, 180.303,63 eurotik gorakoa bada, dirulaguntzaren onuradun den erakundeak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan aurkeztu beharko du, dagokion ordainketaren aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian zenbateko aurreratua estaltzeko bermea, abala edo fidantza eratu izanaren frogagiria.

4.– Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izan ditzan, erakunde eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan inskribatuta behar du.

Erakundea ez badago erregistratuta, edo Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroko banku-datuak aldatu nahi baditu, inprimakia bete beharko du hemen adierazitako ereduari jarraituz: https://www.euskadi.eus/contenidos/autorizacion/alta_terceros/eu_7999/adjuntos/ALTA.pdf

17. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa eta likidazioa.

1.– Diruz lagundutako prestakuntza- eta kontratazio-proiektua osatzen duten prestakuntza-ekin-tzei eta partaidetza sustatzeko eta merkatua aztertzeko jarduketei dagokien likidazioa benetan gauzatutako ekintzen arabera egingo da, bai eta prestakuntza-emaizten eta egindako lan-kontra-tuen arabera ere, 22. artikuluan araututako ez-betetzeen baldintzen arabera. Likidazioak ez du inola ere gaitutako hasiera batean onartutako dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.1.– Prestakuntza-ekintzen partaideen arabera eta benetan egin dituzten eskola-orduak kon-tuan hartuta egingo dira prestakuntza-jarduera gauzatzeko emandako dirulaguntzaren justifikazioa eta likidazioa, ezarritako modulu ekonomikoei jarraituz.

Likidatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, ez da aintzat hartuko ezarritako epeen barruan dagokien lantokian prestakuntza praktikoaren modulua amaitu ez duten ikasleek jasotako prestakuntza.

1.1.a.– Likidazioa kalkulatzeko eragiketa hau egingo da:

–Amodulua 15 ikaslez biderkatuko da–baldin eta prestakuntza hasi zuten ikasleen kopurua aurrei-kusitako gutxieneko eta gehieneko mugen barruan badago–, eta emandako prestakuntza-orduez.

– Aurrez aipatutako zenbatekoari gehituko zaio B modulua eta ekintzak dituen ordu-kopu-ruaren arteko biderketaren emaitza, ekintza amaitu duten ikasleen kasuan –prestakuntza-ekintza bukatu duten ikasletzat hartuko dira gutxienez ekintzaren % 75era joan direnak; ondorio horieta-rako, halakotzat joko dira, halaber, enplegua aurkitu dutelako prestakuntza-ekintza utzi beharrean gertatzen diren ikasleak, bai eta behar bezala egiaztatutako gaixotasun edo istripuagatik uzten dutenak ere, baldin eta, azken bi kasu horietan, gutxienez prestakuntza-jardueraren % 25 egin badute–; eta B modulua eta prestakuntza-ekintzan parte hartu duten ordu-kopuru erre-a-laren arteko biderketaren emaitza, ekintza amaitu ez duten ikasleen kasuan. Ekintza bakoitza ikasle-kopuru batentzat onartutakoa da, eta kalkulua muga horiek errespetatuz egingo da.

Ez da gehituko ekintza benetan amaitu duten ikasleen B modulua zenbatekoa, hau da, ekin-tzaren iraupenaren gutxienez % 75era bertaratu direnen eta 15.A artikuluan adierazitako kalitatea ebaluatzeko galdetegia bete ez dutenen zenbatekoa.

– Aurreko bi eragiketak eginda ateratzen den azken balioari haren % 10 gehituko zaio, zehar-kako gastuei dagokiena.

Ekintzaren iraupenaren % 25 betetzean, hura hasi zuten partaideen % 75ek jarraitzen ez badute, prestakuntza-ekintzak likidatzeko, oinarritzat hartuko da ekintzak amaitu dituzten ikasleen kopurutik abiatuta ateratako A + B + C moduluen zenbatekoa. Prestakuntza-ekintza bukatu duten ikasletzat hartuko dira gutxienez ekintzaren % 75era joan direnak; ondorio horietarako, halakotzat joko dira enplegua aurkitu dutelako prestakuntza-ekintza utzi behar izan duten langabeak, bai eta behar bezala egiaztatutako gaixotasun edo istripuagatik uzten dutenak ere, baldin eta, azken bi kasu horietan, prestakuntza-jardueraren % 25 gutxienez egin badute. B modulua kalkulatzeko, kanpoan utziko dira kalitatea ebaluatzeko galdetegia bete ez duten ikasleak, gutxienez ekintzaren iraupenaren % 75 lagundu dutenen artean.

1.1.b.– Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak prestakuntza-ekintza bakoitza justifikatzeko memoria ekonomikoa aurkeztu beharko du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan, LanF aplikazio telematikoaren bitartez, prestakuntza-ekintza amaitzean prestakuntza-erakundeak ikasleei buruz egingo duen azken ebaluazioa Lanbideek baliozkotu eta 15 eguneko epean, gehienez ere, honako informazio honekin:

– Laburpen-koadro bat. Horretan jaso beharko dira ikasle bakoitzak benetan egindako eskola-orduak eta dagokien zenbatekoa, hots, ezarritako modulu ekonomikoak eta artikulua honekin aurreikusitako irizpideak aplikatuz lortutakoa.

– Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrerara eta dirulaguntza batzuen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria adierazita, hala badagokio.

1.2.– Merkatua aztertu eta partaidetza sustatzeko jarduerak egiteagatik laguntzen likidazioa egiteko, egiaztatu beharko da lan-kontratu bakoitzaren benetako iraupena gutxienez 68 eguneko dela. Kontratuen bat gutxienera iraupen horretara iristen ez bada, kontratu horregatik 600 euro deskontatuko dira likidatu beharreko dirulaguntzatik.

1.3.– 2. artikuluko C.d) apartatuan lan-kontratuak formalizatzeko aurreikusitako bi hilabeteko epea amaitu eta bost egun balioduneko epean, erakunde onuradunak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko du ikastaroko ikasleek egindako lan-kontratuei buruz, LanF aplikazioan emandako ereduaren arabera. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak aitortutako datuak egiaztatuko ditu, Gizarte Segurantzaren alta emanda dagoela kontsultatuta.

2.– Kontratazioagatik dirulaguntzaren enpresa onuradunak, LanF aplikazio telematikoaren bidez, kontratatutako pertsonaren Gizarte Segurantzako kotizazio-datuei buruzko txostena – IDC – Aurkeztu beharko du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan, gehienez ere 15 eguneko epean, diruz lagundutako 6 hilabeteko aldia amaitzen denetik edo kontratua alde aurretik azkentzen den egunetik aurrera.

Laguntzak likidatzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko du egindako kontratuen iraupena eta, diruz lagundutako 6 hilabeteko epea amaitu baino lehen langileak enpresan baja hartzen badu, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, benetako kontratazio-aldiaren proportzioan doitzeko, eta, hala badagokio, itzulketa-prozedura izapidetuko da.

3.– Aurreko 1.1.b, 1.3 eta 2. zenbakietan ezarritako epeak igaro eta haietan jasotako dokumentazioa aurkeztu ez bada, organo eskudunak onuradunari eskatuko dio 15 eguneko epe luzaezinean aurkez dezala. Epe berri hori igarotakoan justifikaziorik aurkezten ez bada, dagokion itzulketa-prozedura hasiko da.

18. artikulua.– Erakunde eta enpresa onuradunen betebeharrak. Jarraipena eta kontrola.

1.– Onuradunaren betebeharrak izango dira, deialdi honetako artikuluetan ezarritakoez gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1 eta 46. artikuluetan oro

har ezarritakoak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia) 50.2 artikuluan jasotakoak, eta enplegurako lanbide-heziketaren sistema arautzen duen araudian zehaztutakoak, prestakuntza-ekintzen bidezko dirulaguntzen arloan.

2.– Zehazki, laguntzen onuradunak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Lan eta Enplegu Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztatze- eta kontrol-jardueren mende egongo dira. Prestakuntza-erakundeek lokaletara eta instalazioetara sartzeko eta prestakuntza-ekintzetako partaideekin eta elkarriketatu beharrekotzat jotzen diren gainerako pertsonekin harremanetan jartzen lagunduko dute.

Europako Gizarte Funtzak finantzatzen lagundutako prestakuntza-ekintzek, Europar Batasuneko araudiaren ondorioz, arlo horretan eskumena duen ministerioak, Europako Batzordeak eta Europako Kontuen Auzitegiak egiten dituzten egiaztapen- eta kontrol-jarduerak onartu beharko dituzte.

3.– Kontrol-jarduera horiek onartzeko betebeharrak orokor honen esparruan, onuradunak honako hau bete beharko du:

– Finantzatutako ekimena gauzatzeari edo bideragarria izateari buruzko edozein informazio ematea eta eskatzen zaion jarraipen-dokumentazioa bete eta bidaltzea.

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea beste erakunde batzuetatik dirulaguntzak edo laguntzak eskatu edo lortu direla, deialdi honetan diruz lagundutako ekintza guztiei edo batzuei eragiten dietenak.

– Diruz lagundutako jardueraren xedea edo nondik norakoa nabarmen aldatzen duen edozein gertaera jakinaraztea, bai eta dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako edozein inguruabarraren aldaketa ere.

4.– 2.A.d) artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, erakunde onuraduna prestakuntza-erakunde bat bada, lan-kontratuak egingo dituzten enpresen kontratazio-konpromisoak aurkeztu beharko ditu prestakuntza-ekintzak amaitu baino hilabete lehenago gutxienez, LanF aplikazioan emandako ereduaren arabera.

5.– Era berean, diruz lagundu daitezkeen gastuek Europako Gizarte Funtserako aukeratuak izateko baldintzak beteko badituzte, erakunde onuradunak laguntzarekin zerikusia duten transakzioak identifikatu beharko ditu, kontabilitate-identifikazio bereizgarri bat edo kontabilitate-kode egoki bat baliatuta.

6.– Prestakuntza-erakunde onuradunaren ordezkariak edo ahaldunak sinatu beharko dute, dirulaguntza onartzeko unean, izaera pertsonaleko datuei dagokien konpromisoa, datu horien tratamenduaren arduradun diren aldetik, arlo hori arautzen duen indarreko legerian ezarritako baldintzen arabera.

7.– Laguntzen erakunde onuradunak lagunduta finantzatutako gastuei buruzko egiaztapen guztiak edo jatorrizko agirien kopia ziurtatuak gordeko dituzte, oro har onartutako datu-euskarrien gainean, 2028ko abenduaren 31 arte.

Agiri horiek jatorrizkoetan edo jatorrizkoen kopia konpultsatuetan gordeko dira, edo oro har onartutako datu-euskarrietan, bereziki jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoan soilik dauden agiriak.

8.– Erakundeak, edo, hala badagokio, enpresak gela bat jarri beharko du partaideen esku, diruz lagundutako ikastaroa amaitzen duten ikasleak adina ordenagailu dituen, 15. artikuluan adierazitako inkesta telematikoa bete ahal izateko. Halaber, erakundea edo enpresa bera izango da inkesta hori betetzen dela bermatzeaz arduratu beharko dena.

19. artikulua.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren finantzaketatik eta Europak lagundutako finantzaketatik sortutako komunikazio-betebeharrak.

Diruz lagundutako jarduera guztietan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzutik jasotzen duten finantzaketa berariaz adierazi beharko dute erakundeek, bai eta horien ondoriozko ekintzetan ere, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren komunikazio-eskuliburuan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte (LanF prestakuntza-aplikazioaren bidez erakunde onuradunen eskura jarriko da eskuliburu hori).

Prestakuntza-ekintza guztiek Europak lagundutako finantzaketa jasoko dutela aurreikusita, erakundeek berariaz adierazi beharko dute Europako Gizarte Funtsak lagundutako finantzaketa hori, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Komunikazio Eskuliburuan jasota dagoen EGF logoaren bidez, sortzen diren material didaktiko guztietan nahiz bestelako materialetan, bai eta diruz lagundutako jardueren berri emateko, hedatzeko eta/edo publizitatea egiteko ekintzetan ere.

Europak lagundutako finantzaketaren aipamena jaso beharko da, halaber, sinatutako kontratuetan eta prospekzio-ekintzekin lotutako material eta jarduera guztietan.

Dirulaguntzaren erakunde onuradunen zerrenda argitara emango da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 115. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitako zerrenda publikoan.

20. artikulua.– Dirulaguntza aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan gertatu den aldaketa orok ekarri ahal izango du emandako dirulaguntza aldatzea, deialdi honetan dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunak betetzen badira, betiere. Baldintzak aldatzeagatik dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, hasiera emango zaio itzultzeko prozedurari.

21. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Deialdi honen xede diren laguntzak (prestakuntza-ekintzak egiteagatik edo merkatua aztertzeke eta partaidetza sustatzeko jarduera egiteagatik emandakoak) bateraezinak dira administrazio honek edo beste batzuek edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek kontzeptu eta helburu beragatik emandako beste edozein dirulaguntza edo laguntzarekin.

2.– Lan-kontratuak egiteagatiko deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateraezinak dira kontratazio bereko beste edozein motatako dirulaguntza edo laguntzak eskuratzearekin, Gizarte Segurantzako kotizazioan izandako murrizketa eta/edo hobariekin izan ezik.

22. artikulua.– Dirulaguntzak itzultzea.

1.– Ezin izango da eskatu dirulaguntza ordaintzeko, eta, hala badagokio, jasotako kopuru osoak edo horien zati bat itzuliko dira, eta dirulaguntza ordaintzen den unetik aurrera ezar daitezkeen berandutze-interesak eskatuko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 37. artikuluan, bai eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testu bateginaren (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia) 53.1 artikuluan aurreikusten diren kasuetan. Eta, bereziki, honako hauetan:

a) Jarduera egin izana eta laguntza ematea edo baliatzea baldintzatzen duten baldintza eta betekizunak bete izana justifikatu beharra ez betetzea.

b) Dirulaguntza lortzea, horretarako eskatutako baldintzak bete gabe.

c) Jarraipen- eta kontrol-jardunak ukatzea edo oztopatzea.

d) Diruz lagundutako ekintzak gauzatzeko baldintzei buruz errealitatearekin bat ez datozen datu faltsuak ematea.

e) Deialdi honen 19. artikuluan jasotako komunikazio- eta hedapen-betebeharrak ez betetzea.

f) Deialdi honetan zehaztutako beste edozein betebeharrak, baldintza edo betekizun ez betetzea.

2.– Balizko ez-betetzeen maila honako irizpide hauen arabera zehaztuko da:

2.1.– Partaidetza sustatzeko eta merkatua aztertzekeo jarduerak eta prestakuntza-ekintzak egiteko dirulaguntzen kasuan.

a) Ez-betetze erabatekoa gertatzen bada: dirulaguntza emateko xedea edo hori justifikatzeko betebeharra erabat betetzen ez bada, bi kontzeptuen (prestakuntza, batetik, eta partaidetza sustatzeko eta merkatua aztertzekeo jarduera, bestetik) zioz emandako dirulaguntzaren % 100 itzuli behar izango da.

Era berean, ez-betetze osotzat joko da, eta bidezkoa izango da bi kontzeptuengatik (prestakuntza, batetik, eta partaidetza sustatzeko eta merkatua aztertzekeo jarduera, bestetik) emandako dirulaguntzak itzultzea:

– baldin eta ez bada kontratatzen proiektuko prestakuntza kualifikatzaile nagusia amaitzen eta gainditzen duten ikasleen % 30.

– baldin eta prestakuntza amaitzen ez badute prestakuntza hasi zuten emakumeen % 70ek; ondorio horietarako, prestakuntza hori amaitu dutela ulertzen da, baldin eta enplegua aurkitzeagatik prestakuntza-jarduera utzi behar izan behar badute ikasleek, bai eta ikastaroan gaixotasunagatik edo istripuagatik baja hartu behar izan badute ere.

b) Ez-betetze partziala gertatzen bada: dirulaguntza emateko xedea edo hori justifikatzeko betebeharra hein batean betetzen ez bada, emandako dirulaguntza aldatu edo hein batean itzuliko da.

Era berean, ez-betetze partzialtzat hartuko dira kasu hauek:

Prestakuntza kualifikatzailea amaitu eta gainditu duten emakume guztiekiko egindako kontratuen ehunekoa	Prestakuntza ekintzetan emandako dirulaguntzaren (likidatua) murrizketa
≥ % 60 eta < % 70	% 20
≥ % 50 eta < % 60	% 30
≥ % 40 eta < % 50	% 40
≥ % 30 eta % <40	% 50

Ikasleek kontratazioari uko egiteak ez du justifikatuko hori egiteko konpromisoa ez betetzea, baldin eta ez badago prestakuntza duen pertsona gehiago kontratatzekeo moduan.

2.2.– Kontratazioagatiko dirulaguntzei dagokienez, gutxienez sei hilabeteko epea bete gabe lan-harremana amaitzen bada, edozein dela arrazoia, laguntza itzuli egin beharko da. Hau da, aldeztetik ordaindutako dirulaguntza itzuli beharko da, bete ez den kontratazio-aldiari dagokiona.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak abiaraziko du itzultzeko prozedura, eta idazkia bidaliko dio laguntzaren enpresa edo erakunde onuradunari, ez-betetzea eragin duten gertaeren berri emateko. Era berean, egokitze jotako alegazioak edo egiaztagiriak aurkezteko hamabost eguneko epea duela ere jakinaraziko dio.

4.– Alegazioak aurkeztu ondoren edo alegazio horiek egiteko epea igaro ondoren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak ebazpena emango du.

Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez ere 12 hilabeteko epean ebatzi beharko da.

5.– Ebazpenean ez-betetzeren bat izan dela iritziz gero, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da, eta, hala badagokio, ebazpena jakinarazten denetik aurrera gehienez bi hilabeteko epean, dagozkion diru-kopuruak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari itzuli beharra ekarriko du. Epe hori borondatezko epea izango da.

Itzulketa borondatezko aldiaren egiten ez bada, itzuli beharrekoak premiamendu bidez berreskuratzeke izapideak hasiko dira.

23. artikulua.– Datuen babesari buruzko informazioa.

Datu pertsonalen babesaren arloan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bi xedapen hauen araberak jokatu du: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB 2016/679 Erregelamendua) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa. Lortzen diren datu pertsonalak «Enplegurako eta enpleguko prestakuntzarako dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueraren barruan egongo dira. Jarduera horren arduraduna Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua da, eta jardueraren helburua da Lanbideren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin zerikusia duten dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea, bai eta iruzurra jazartzea eta datuak estatistiketan erabiltzea ere. Lortzen diren datuak beharrezkoak dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari emandako botere publikoak gauzatzeko eta lege-betebeharrak betetzeko, eta arlo horretan eskumena duten administrazio publikoei komunikatu ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek eskubidea dute beren datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta tratamenduaren aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko ere. Horretarako, idatzizko komunikazio bat bidali behar dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz).

Datuen babesari buruzko informazio osagarri eta zehatza kontsultatzeko: www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-capa2-eu.shtml

24. artikulua.– Eskumenari buruzko Europako araudia.

1.– Deialdi honetan adierazitako laguntzak (lan kontratuak egiteagatikoak) minimis aruari lotuko zaizkio; Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EE) Erregelamenduan dago xedatuta arau hori, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluek aplikatzeari buruzko erregelamendua izanik. Kalifikazio horren ondorioz, enpresa bakar bati emandako «minimis» laguntzen gutzitako zenbatekoa ez da 200.000 eurotik gorakoa izango hiru zerga-ekitalditan.

2.– Kasuko ekitaldi fiskalean eta aurreko bietan jasotako minimis laguntza horiei buruzko aitopena egin beharko du pertsona edo erakunde eskatzaileak, zehaztu behar baita minimis laguntza berriak ez duela gainditzen Erregelamenduan ezarritako muga maximoa.

25. artikulua.– Aplikatu beharreko araudia.

1.– Dirulaguntza-programa honi honako arau hauetan bildutako dirulaguntzei buruzko araubide juridikoa aplikatu behar zaio: Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua); azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, azken horrek arautu baitzuen Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak.

2.– Europako Gizarte Funtsak lagundutako finantzaketa dutenez, dirulaguntza hauei xedapen hauetan ezarritakoa aplikatuko zaie: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 Erregelamendua (EB); Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1304/2013 Erregelamendua (EB), Europako Gizarte Funtsari buruzkoa eta Kontseiluaren 1083/2006 Erregelamendua (EE) indargabetzekoa; ESS/1924/2016 Agindua, abenduaren 13koa, Europako Gizarte Funtsak 2014-2020 programazio-aldian diruz lagundu ditzakeen gastuak zehazten dituen, eta EAEko 2014-2020 EGF Programa Operatiboari eta EAEko 2021-2027 EGF Plus Programa Operatiboari aplikatu beharreko bestelako arauak. Hauta daitezkeen gazteen kasuan, Gazte Enplegurako Programa Operatiboa 2014-2020 programari aplikatu beharreko araudia.

3.– Deialdi honetan aurreikusi ez den horretan, aplikagarri izango dira 30/2015 Legea, irailaren 9koa, Lan-arloko enplegurako lanbide-heziketaren sistema arautzen duena; 694/2017 Errege Dekretua, uztailaren 3koa, zeinaren bitartez garatzen baita 30/2015 Legea, irailaren 9koa, Lan-arloko enplegurako lanbide-heziketaren sistema arautzen duena; eta TMS/368/2019 Agindua, martxoaren 28koa, zeinaren bidez garatzen baita 694/2017 Errege Dekretua, uztailaren 3koa, irailaren 9ko 30/2015 Legea garatzen duena.

Profesionaltasun-ziurtagiriak lortzea xede duten prestakuntza-ekintzei dagokienez, arau hauek aplikatuko zaizkie: 34/2008 Errege Dekretua, urtarrilaren 18koa, Profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituen, eta ESS/1897/2013 Agindua, urriaren 10ekoa, errege-dekretua arautzen duena, deialdi honetan ezarritako alderdi guztiei dagokienez, araudi horietan baldintza bereziak ezartzen baitira.

ERANSKINA

ESPEZIALITATE KUALIFIKATZAILE PROGRAMAGARRIAK ETA MODULU EKONOMIKOAK

A) Modalitate presentzian emandako ekintzetarako modulu ekonomikoak.

1.– Prestakuntza-ekintza presentzial bakoitzeko modulu globala 3 osagairen batura da:

a) A Modulua: Langileen kostua.

Zuzeneko kostuaren kontzeptu honek honako hauen kostuak biltzen ditu: irakasleak, bitartekotza-tutorea eta ikasketa-burutza. A moduluan, unitateko kostuaren balio ekonomikoa hau izango da: 4,09 euro orduko eta ikasleko.

Prestakuntza-ekintzetako partaideen kopurua gehienez 15ekoa eta gutxienez 8koa bada, modulu hau 15 ikasleko kopuru finkoari aplikatuko zaio.

Horrenbestez, moduluaren baremo estandarrak balio finkoa izango du prestakuntza-talde bakoitzeko: 61,35 euro orduko.

b) B Modulua: Funtzionamendu-gastuak.

b.1.– Modulu horretan, bi motako zuzeneko kostuak sartzen dira:

b.1.1.– Mantentze-kostuak. Honako hauek sartzen dira: altzariak berritzea, konponketak, publizitatea, komunikazioak, bilerak eta ikastaroak, enprekin egin beharreko gestioak, liburuak eta argitalpenak, eta higiezin eta ekipamenduen alokairuak eta amortizazioak.

b.1.2.– Material didaktiko espezifikoren kostuak. Prestakuntza-ekintzari dagokion lanbide-arloaren eta kualifikazio-mailaren arabera kalkulatu dira kostu horiek.

b.2.– B moduluko espezialitateen laburpena.

b.2.1.– Prestakuntza-ekintza kualifikatzaileak:

Lanbide-arloa	Kodea	Izena	Maila	Orduak	B modulua	Betek. osag.
AGA	AGAH0108	Baratzezaintza eta lorezaintza	2	560	2,89	
AGA	AGAN02EXP	Zaintza osagarriak albaitaritza-klinikan	3	300	3,30	
AGA	AGAO0108	Haztegi, lorategi eta lorezaintza-zentroetako jardura osagarriak	1	250	1,44	
AGA	AGAO0208	Lorategiak eta berdeguneak instalatzeko eta mantentzeko lanak	2	390	1,34	
AGA	AGAR0108	Baso-aprobetxamenduak	2	520	2,89	
AGA	AGAR0309	Mendiak kontserbatzeko eta hobetzeko jardura osagarriak	1	230	1,75	
AGA	AGAX0208	Nekazaritzako jardura osagarriak	1	330	1,34	
ARG	ARGG0110	Produktu grafikoaren diseinua	3	560	1,55	
ARG	ARGI0309	Erreprografia	1	220	1,55	
ARG	ARGN0110	Argitalpen-produktuen multimedia-diseinua	3	490	1,34	

Lanbide-arloa	Kodea	Izena	Maila	Orduak	B modulua	Betek. osag.
ARG	ARGT0111	Produktu grafikoak manipulatzeko eta amaitzeko eragiketak	1	220	1,55	
ARG	ARGT0211	Industria grafikoetako eragiketa osagarriak	1	240	1,55	
COM	COML01	Marketin digitala eta merkataritza elektronikoa automobilgintzan	3	130	1,55	
COM	COML0109	Salgaien errepideko trafikoa	3	440	1,34	
COM	COML0110	Biltegioko jarduera osagarriak	1	170	1,86	
COM	COML0111	Bidaiarien errepideko trafikoa	3	370	1,34	
COM	COML02	Eraldaketa logistikoa 4.0 industriaren ingurunean	3	25	1,55	
COM	COML0209	Garraioaren eta banaketaren antolakuntza	3	340	1,55	
COM	COML0210	Hornikuntzaren kudeaketa eta kontrola	3	370	1,55	
COM	COML0211	Errepide bidezko garraiorako kudeaketa komertziala eta finantzarioa	3	550	1,55	
COM	COML0309	Biltegien kudeaketa eta antolamendua	3	310	1,55	
COM	COML04	Lean inguruko hornikuntza-sistemen diseinua	3	30	2,50	
COM	COML05	Logistika integrala eta alderantzizko logistika enpresa baten hornidura-katean	3	30	1,50	
COM	COML06	Produktuen eta zerbitzuen trazabilitateko azken teknologiak	3	30	1,50	
COM	COML07	Garraio-sektore desberdinetan ibilbideak planifikatzeko sistemak	3	30	1,50	
COM	COML08	Produktu eta zerbitzuen hornidura-katea kanporatzeko prozesuak	3	30	1,50	
ELE	ELEE01	Sare elektriko adimendunak	3	100	1,75	
ELE	ELEE0108	Sare elektrikoak muntatzeko eragiketa osagarriak	1	140	2,17	
ELE	ELEE0109	Behe-tentsioko instalazio elektriko muntaketa eta mantentze-lana	2	840	1,96	
ELE	ELEE0209	Bigarren eta hirugarren kategoriako tentsio altuko sare elektriko eta eraldaketa-zentroen muntaketa eta mantentze-lana	2	410	1,75	
ELE	ELEE0110	Eraikinen inguruko instalazio elektriko proiektuen garapena, xede berezietarako	3	440	1,96	
ELE	ELEE0310	Eraikinen inguruko instalazio elektriko muntatzeko eta mantentzeko lanen kudeaketa eta gainbegiratzea	3	620	1,75	
ELE	ELEE0410	Bigarren eta hirugarren kategoriako tentsio altuko aireko sare elektriko eta aire zabaleko eraldaketa-zentroen muntaketa eta mantentze-lanen kudeaketa eta gainbegiratzea	3	560	1,55	
ELE	ELEE0510	Bigarren eta hirugarren kategoriako tentsio altuko lurpeko sare elektriko eta barrualdeko eraldaketa-zentroen muntaketa eta mantentze-lanen kudeaketa eta gainbegiratzea	3	560	1,55	

Lanbide- arhoa	Kodea	Izena	Maila	Orduak	B modulua	Betek. osag.
ELE	ELEM0110	Automatizazio industrialeko sistemen proiektuen garapena	3	550	2,37	
ELE	ELEM0111	Sistema domotikoen eta immotikoen muntaketa eta mantentze-lana	2	360	2,17	
ELE	ELEM0210	Automatizazio industrialeko sistemen muntaketa eta mantentze-lanen kudeaketa eta gainbegiratzea	3	530	2,37	
ELE	ELEM0311	Automatizazio industrialeko sistemen muntaketa eta mantentze-lana	2	390	2,58	
ELE	ELEM04	Instalazio automatizatuen urrutiko mantentze-lana	2	350	3,20	
ELE	ELEM05	«Cobots» robot lankideen instalazioa eta mantentze-lana	2	200	3,20	
ELE	ELEQ0108	Elektromedikuntzako sistemen instalazioa eta mantentze-lana	2	480	1,96	
ELE	ELEQ0111	Ekipo elektrikoak eta elektronikoak muntatzeko eta mantentzeko eragiketa osagarriak	1	310	1,96	
ELE	ELEQ01EXP	Zirkuitu inprimatuko plaken diseinua, fabrikazioa eta muntaketa	3	280	2,17	
ELE	ELEQ0208	Elektromedikuntzako sistemak instalatzeko eta mantentzeko lanen kudeaketa eta gainbegiratzea	3	620	1,96	
ELE	ELEQ02EXP	Kontrol mikro-programagarriko ekipo elektronikoaren diseinua, fabrikazioa, muntaketa eta mantentze-lana	3	320	2,17	
ELE	ELEQ0311	Ekipo elektronikoaren mantentze-lanak	3	600	1,75	
ELE	ELEQ03EXP	Potentzia eta kontroleko ekipo elektronikoaren diseinua, fabrikazioa, muntaketa eta mantentze-lana	3	290	2,17	
ELE	ELES01	5G sareen instalazioa	3	25	3,20	
ELE	ELES0108	Eraikinetako telekomunikazio-azpiegituren muntaketa eta mantentze-lana	2	330	2,17	
ELE	ELES0109	Lokalen sonorizazioko, megafoniako eta telebista-zirkuitu itxietako instalazioen muntaketa eta mantentze-lana	2	270	2,17	
ELE	ELES0110	Eraikinen inguruan telekomunikazio-azpiegituren eta ahots- eta datu-sareen azpiegituren proiektuak garatzeko lanak	3	420	1,96	
ELE	ELES02	Eraikin adimendunetan IoT sistemak instalatu eta integratzeko lanak	3	125	2,30	
ELE	ELES0208	Eraikinetako instalazio elektroteknikoak eta telekomunikazioetakoak muntatzeko eragiketa osagarriak	1	300	2,17	
ELE	ELES0209	Tokiko datu-sareen azpiegituren eta telefonia-sistemen muntaketa eta mantentze-lana	2	340	2,17	
ELE	ELES0411	Sareko ekipoak eta oinarrizko telefonia-estazioak muntatzeko eta mantentzeko lanen kudeaketa eta gainbegiratzea	3	690	1,75	
ENA	ENAC01	Energia elektrikoaren biltegia	3	100	1,65	

Lanbide- arloan	Kodea	Izena	Maila	Orduak	B modulua	Betek. osag.
ENA	ENAC0108	Eraikinen eraginkortasun energetikoa	3	800	1,65	
ENA	ENAC02	Energia-eskariaren kudeaketa	4	130	1,65	
ENA	ENAC03	Eraikinen ziurtapen energetikorako tresnak	4	100	1,65	
ENA	ENAC04	Sorrera banatua eta autokontsumo fotovoltaikoko instalazioak: sarrera	3	180	1,65	
ENA	ENAC05	Kudeaketa energetikoa eraikuntzan	3	87	2,30	
ENA	ENAE0108	Eguzki-instalazio fotovoltaikoen muntaketa eta mantentze-lana	2	420	1,96	
ENA	ENAE02	Energia berriztagarrien teknologiak	3	90	1,50	
ENA	ENAE0208	Eguzki-instalazio termikoen muntaketa eta mantentze-lana	2	420	2,37	
ENA	ENAE0308	Eguzki-instalazio termikoen antolaketa eta proiektuak	3	470	1,96	
ENA	ENAE0508	Eguzki-instalazio fotovoltaikoen antolaketa eta proiektuak	3	470	1,96	
ENA	ENAL0108	Zentral termoelektrokoetako eragiketen kudeaketa	3	670	1,75	
ENA	ENAS0110	Instalazio hartzaileak eta gas-aparatuak muntatu, martxan jarri, mantendu, ikuskatu eta berrikusteko lanak	2	460	2,37	
EOC	EOCB01	Bioeraikuntza	2	498	2,89	
EOC	EOCB0108	Igeltserotzako fabrikak	2	410	2,89	
EOC	EOCB0109	Eraikuntzako estalki jarraituen eragiketa osagarriak	1	360	1,96	
EOC	EOCB0111	Estalki inklinatuak	2	570	2,68	
EOC	EOCB0208	Fabrika eta estalkietako igeltserotza-eragiketa osagarriak	1	280	1,96	
EOC	EOCB0210	Pasta eta mortero bidezko estalkiak eraikuntzan	2	590	2,68	
EOC	EOCB0211	Urbanizazio-igeltserotza eta zoladurak	2	410	2,89	
EOC	EOCB0311	Pintura industrialera eraikuntzan	2	520	2,79	
EOC	EOCE0109	Altxaerak eta zuinketak	3	480	1,96	
EOC	EOCH0108	Hormigoi-eragiketak	1	220	1,96	
EOC	EOCJ0109	Aldamio tubularren muntaketa	2	280	3,41	
EOC	EOCJ0110	Igeltso ijeltzuko plaka eta sabai aizunen instalazioa	2	470	3,41	
EOC	EOCJ0111	Xaflaz osatutako mintzen bidez iragazgaizteko lanak	2	510	3,41	
EOC	EOCJ0311	Eraikuntzan estalki arinak eta teknikoak egiteko oinarrizko eragiketak	1	270	1,75	
EOC	EOCO01	Fotogrametria RPAS bidez, eraikuntzan eta obra zibilean	3	65	2,58	X

Lanbide- arloan	Kodea	Izena	Maila	Orduak	B modulua	Betek. osag.
EOC	EOCO0108	Eraikuntza-proiektuen ordezkari	3	480	1,96	
EOC	EOCO0112	Eraikuntza-obren egikaritzaren kontrola	3	630	1,55	
EOC	EOCO02	RPAS-en pilotatze profesionala eraikuntzan eta obra zibilean (baimena: multirrotorea, 0-5 kg-ko M _{tow})	2	75	2,58	X
EOC	EOCO0212	Obra zibilen egikaritzaren kontrola	3	530	1,55	
EOC	EOCO04	Arkitektura tradizional bioklimatikoa	2	200	3,20	
EOC	EOCO05	Smart-City delakoetan ezartzeko sistemak eta teknologiak	3	200	1,50	
EOC	EOCO06	Eraikin osasungarrien diagnostikoa eta ebaluazioa	3	200	1,50	
EOC	EOCO07	Ekonomia zirkularraren aplikazioa eraikuntzan	3	240	1,70	
EOC	EOCO082EXP	Segurtasunaren koordinazioa eraikuntza-obretan	4	200	1,96	
EOC	EOCQ01EXP	Indusketa-makinen erabilera aire zabalean	2	360	2,99	
EOC	EOCQ02EXP	Oinarrizko manutentzio-makinen erabilera eraikuntzan	2	180	3,30	
EOC	EOCQ03EXP	Lurrak mugitzeko mini-makinen erabilera	2	270	3,20	
FME	FMEC0108	Industria-hoditeriako instalazioen fabrikazioa eta muntaketa	2	450	2,79	
FME	FMEC0109	ekoizpena metal-eraikuntzetan	3	410	2,17	
FME	FMEC0110	Elektrodo estaliaren bidezko soldadura eta TIG soldadura	2	640	2,58	
FME	FMEC02	Metalezko eta plastikozko edukiontzien konponketa eta soldadura	1	230	3,20	
FME	FMEC0208	Galdaragintza eta metal-egituren diseinua	3	620	2,17	
FME	FMEC0209	Hoditeria industrialaren diseinua	3	440	2,17	
FME	FMEC0210	Oxigeno bidezko soldadura eta MIG/MAG soldadura	2	560	2,68	
FME	FMEE0108	Fabrikazio mekanikoko eragiketa osagarriak	1	400	1,96	
FME	FMEE0208	Ekipo-ondasunak eta industria-makineria muntatzeko eta abiarazteko lanak	2	610	1,96	
FME	FMEE0308	Fabrikazio mekanikoko produktuen diseinua	3	600	1,55	
FME	FMEF0108	Galdaketa eta isurketa	2	320	2,17	
FME	FMEH0109	Txirbil-harroketara bidezko mekanizazioa	2	540	1,55	
FME	FMEH0209	Ebaketa eta konformazio bidezko mekanizazioa	2	540	1,55	
FME	FMEH0309	Azaleko tratamenduak	2	450	1,65	
FME	FMEH0409	Urraduraren, elektroerosioaren eta prozedura berezien bidezko mekanizazioa	2	540	1,55	
FME	FMEM0109	Fabrikazio mekanikoko produkzioaren kudeaketa	3	310	2,37	

2021eko ekainaren 14a, astelehena

Lanbide- arloan	Kodea	Izena	Maila	Orduak	B modulua	Betek. osag.
FME	FMEM0111	Dekoletaje bidezko fabrikazioa	3	590	2,37	
FME	FMEM02	Automobilgintza 4.0ren managerrak: eraldaketa digitalaren estrategia eta ezagutza	3	55	2,37	
FME	FMEM0209	Mekanizazio, konformazio eta muntaketa mekanikoko produkzioa	3	520	2,37	
FME	FMEM0211	Mekanizazio bidezko fabrikazioa abiadura altuan eta errendimendu altuan	3	590	2,37	
FME	FMEM0309	Txapa prozesatzeko tresnen diseinua	3	600	1,75	
FME	FMEM0311	Metalezko txapazko piezak ekoizteko trokelen fabrikazioa	3	590	2,37	
FME	FMEM0409	Galdaketarako edo forjaketarako molde eta ereduaren diseinua	3	610	1,75	
FME	FMEM0411	Pieza polimeroak eta aleazio arinezkoak ekoizteko moldeen fabrikazioa	3	590	2,58	
FME	FMEM04EXP	Project Leader automobilgintzaren sektorean	3	245	1,75	
FME	FMEM06EXP	Fabrikazio gehigarria: 3D inprimaketa	3	360	2,58	
IEX	IEXD0308	Harri naturala lantzeko eta mineralak eta arrokak tratatzeko eta ustiatzeko instalazioetako eragiketa osagarriak	1	260	1,96	
IEX	IEXD0409	Harri naturala jartzea	2	560	2,58	
IMA	IMAI0108	Etxeko iturgintzako eta berotzeko eta girotzeko eragiketak	1	320	2,17	
IMA	IMAQ0108	Industria-ekipoen muntaketa eta mantentze mekanikoa	2	510	2,58	
IMA	IMAQ0110	Igogailuen eta jasotzeko eta garraiatzeko beste tresna finko batzuen instalazioa eta mantentze-lana	2	480	3,10	
IMA	IMAQ0208	Makinak, ekipo industrialak eta produkzio-automobilgintza-lerroak planifikatu, kudeatu, mantendu eta gainbegiratzeko lanak	3	490	2,37	
IMA	IMAQ0210	Mantentzeko, jasotzeko eta garraiatzeko instalazioen proiektuen garapena	3	540	1,55	
IMA	IMAR0108	Hotz-instalazioen muntaketa eta mantentze-lana	2	420	2,37	
IMA	IMAR0208	Girotzeko eta aireztatzeko/erauzteko instalazioen muntaketa eta mantentze-lana	2	380	2,37	
IMA	IMAR0209	Hotz-instalazioen proiektuen garapena	3	490	1,75	
IMA	IMAR0309	Hotz-instalazioen muntaketa planifikatu, kudeatu, mantendu eta gainbegiratzeko lanak	3	460	1,75	
IMA	IMAR04	Edozein kargatuko fluordun hoztaileak dauzkaten hotz-sistemako ekipamenduak manipulatzeko ikastaro osagarria	2	30	2,17	X
IMA	IMAR0408	Bero-instalazioen muntaketa eta mantentze-lana	2	380	2,37	
IMA	IMAR0409	Girotzeko eta aireztatzeko-erauzteko instalazioen muntaketa planifikatu, kudeatu, mantendu eta gainbegiratzeko lanak	3	460	1,55	

Lanbide- arloan	Kodea	Izena	Maila	Orduak	B modulua	Betek. osag.
IMA	IMAR05	Edozein kargako fluordun hoztaileak dauzkaten hotz-sistemako ekipamenduak manipulatzeko oinarritzko ikastaroa	2	90	1,96	X
IMA	IMAR0509	Bero-instalazioen muntaketa planifikatu, kudeatu, mantendu eta gainbegiratzeko lanak	3	460	1,55	
IMA	IMAR06	3 kg-tik beherako kargako fluordun hoztaileak dauzkaten hotz-sistemako ekipamenduak manipulatzeko ikastaro osagarria	2	110	1,96	X
IMA	IMAR12	Girotze-sistemara aplikatutako aerotermita-instalazioen muntaketa eta mantentze-lana	2	50	2,50	
IMA	IMAR13	Girotze-sistemara aplikatutako geotermiako eta eguzki-energiako instalazioen muntaketa eta mantentze-lana	2	50	2,50	
INA	INAD0108	Elikagaien industriako elaborazio-eragiketa osagarriak	1	260	1,75	
INA	INAD0210	Animaliei jaten emateko produktuen fabrikazioa	2	280	2,37	
INA	INAE0109	Gaztagintza	2	310	1,96	
INA	INAE0110	Esneki-industriak	3	480	1,96	
INA	INAE0209	Kontsumoko esneen eta esnekien elaborazioa	2	480	1,96	
INA	INAF0108	Okintza eta opilgintza	2	450	2,37	
INA	INAF0109	Pastelgintza eta konfiteria	2	500	2,37	
INA	INAF0110	Zerealen eta gozokien deribatuen industriak	3	510	2,17	
INA	INAH0110	Mahatsaren eta ardoaren deribatuaren industriak	3	450	1,96	
INA	INAH0209	Enoteknia	3	540	1,96	
INA	INAH0210	Garagardoaren elaborazioa	2	230	1,96	
INA	INAH0310	Ontziraturako edarietako uren eta freskagarrien elaborazioa	2	200	1,96	
INA	INAI0108	Harakintza eta haragikien elaborazioa	2	430	3,92	
INA	INAI0109	Haragiki-industriak	3	480	2,58	
INA	INAI0208	Animaliak hil eta zatitzeko lanak	2	390	2,79	
INA	INAJ0109	Arrandegia eta arrantzako eta akuikulturako produktuen elaborazioa	2	460	2,37	
INA	INAJ0110	Arrantzako eta akuikulturako produktuen industriak	3	480	2,79	
INA	INAQ0108	Elikagaien industriako mantentze-lanetako eta barne-garraioko eragiketa osagarriak	1	200	1,34	
MAM	MAMA0210	Zur-zuntz eta -partikulazko oholzten fabrikazioa	2	270	2,17	
MAM	MAMB0110	Instalazioko eta altzari-hornikuntzako proiektuak	3	340	2,17	
MAM	MAMB0210	Zurezko eraikuntzak muntatu eta instalatzeko lanak	2	430	2,17	

Lanbide-arloa	Kodea	Izena	Maila	Orduak	B modulua	Betek. osag.
MAM	MAMD0109	Arotzeriako eta altzarigintzako elementuetan bernizak eta lakak aplikatzeko lanak	1	170	2,17	
MAM	MAMD0110	Zuraren eta arotzeriaren industrietako produkzioa antolatzeko eta kudeatzeko lanak	3	460	2,37	
MAM	MAMD0209	Arotzeriako eta altzarigintzako lanak	1	220	2,17	
MAM	MAMR0108	Altzarien eta arotzeriako elementuen muntaketa	2	380	2,99	
MAM	MAMR0408	Altzarien instalazioa	2	470	2,99	
MAM	MAMS0108	Arotzeriako elementuen instalazioa	2	420	2,58	
QUI	QUIA0108	Froga fisikoak eta fisikokimikoak	3	420	2,37	
QUI	QUIA0208	Froga mikrobiologikoak eta bioteknologikoak	3	440	2,37	
QUI	QUIA20	Instalazio erradiaktiboen operadorea. Erradiografia industrialaren eta prozesuen kontrolaren espezialitatea	2	80	2,37	X
QUI	QUIE02	4.0 industria eta digitalizazioa industria kimikoan	3	25	1,50	
QUI	QUIE0208	Energia eta zerbitzu osagarrien instalazioetako eragiketak	2	450	2,58	
QUI	QUIE0308	Eragiketa osagarriak eta bilketakoak industria eta laborategi kimikoetan	1	220	2,17	
QUI	QUIE0408	Industria kimikoko produktuak mugitzeko eta entregatzeko eragiketak	2	380	2,37	
QUI	QUIL0108	Analisi kimikoa	3	570	2,37	
QUI	QUIO0109	Paper-pasten prestaketa	2	460	2,37	
QUI	QUIT0109	Polimero termoegonkorak eta horien osagaiak eraldatzeko eragiketak	2	390	1,86	
QUI	QUIT0209	Polimero termoplastikoak eraldatzeko eragiketak	2	410	1,75	
QUI	QUIT0309	Kautxua eraldatzeko eragiketak	2	450	1,75	
TMV	TMVC0001OV	«E» gidabaimena lortzea	2	340	3,92	X
TMV	TMVC0002OV	«D» eta «CAP» gidabaimenak lortzea	2	385	3,92	X
TMV	TMVC0003OV	«C1-C», «CAP» eta «ADR» gidabaimenak lortzea	2	425	3,72	X
TMV	TMVG01	Pertsonen erosotasun termikorako ibilgailuetan instalatutako fluordun hoztaileak erabiltzen dituzten hotz-sistemak manipulatzeari buruzko ikastaroa	2	44	2,79	X
TMV	TMVG0109	Ibilgailuen elektromekanikako mantentze-eragiketa osagarriak	1	270	2,58	
TMV	TMVG02	Ibilgailu hibridoaren eta elektrikoaren mantentze-lana	3	90	2,79	
TMV	TMVG0209	Ibilgailuen sistema elektriko eta elektronikoen mantentze-lana	2	440	2,79	

Lanbide-arloa	Kodea	Izena	Maila	Orduak	B modulua	Betek. osag.
TMV	TMVG0210	Nekazaritzarako, erauzketa-industriarako eta eraikuntzarako eta obra zibiletarako makineriaren errodaje- eta transmisio-sistemen, ekipoen eta lanabesen mantentze-lana	2	600	2,58	
TMV	TMVG0309	Ibilgailu automobilen indarra transmititzeko sistemen eta errodaje-trenen mantentze-lana	2	400	2,89	
TMV	TMVG0310	Nekazaritzarako, erauzketa-industriarako eta eraikuntzarako eta obra zibiletarako makineriaren segurtasunerako eta erosotasunerako sistema elektrikoek eta motorren mantentze-lana	2	430	2,79	
TMV	TMVG0409	Motorraren eta sistema osagarrien mantentze-lana	2	440	2,79	
TMV	TMVI02	Prestakuntza espezifikoa gidari profesionalentzat: kargen mobilizazioak eta hizkuntzak	1	150	1,96	X
TMV	TMVL0109	Ibilgailuen karrozerien mantentze-eragiketa osagarriak	1	270	2,58	
TMV	TMVL0209	Ibilgailuen karrozeriaren egiturazkoak ez diren elementuen mantentze-lana	2	590	2,37	
TMV	TMVL0309	Ibilgailuen karrozeriaren egituren mantentze-lana	2	520	2,37	
TMV	TMVL0409	Ibilgailuaren gainazalak txukuntzeko eta dekoratzeko lana	2	500	2,37	
TMV	TMVL0509	Ibilgailuen pintura	2	460	2,37	

c) C Modulua: Zeharkako kostuak.

Modulu hau A eta B moduluen kostuen % 10 da, eta, besteak beste, kontzeptu hauek biltzen ditu: zuzendariaren langileria-gastuak, administrazio-langileen langileria-gastuak, berokuntza, argiztapena, garbitasuna, instalazioen aseguruak, su-itxalgailuak, alarmak, kanpoarekiko komunikazioak, batzarrak, hitzaldiak, ikastaroak eta bestelakoak, joan-etorriak eta enpresekiko kudeaketa, fotokopiak (administrazio-arloa), bulegoko materiala eta informatikoa, ura, farmazia-produktuak, aholkularitzak eta gestoriak, telefona eta internet, administrazio-sailerako softwarea, langileentzako mutualitateak, kalitate-sistemak, igogailuen konponketa.

zModulu honen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu dirulaguntzaren guztizko zenbatekoaren % 10.

2.– Prestakuntza-ekintza presentzial bakoitzeko guztizko dirulaguntzaren kalkulua.

Prestakuntza-ekintza bakoitzerako onartutako guztizko dirulaguntza honela kalkulatu da:

Prestakuntza-ekintza bakoitzeko dirulaguntza, $GUZTIRA = A + B + (A+B)$ ren % 10

Azalpena:

$A = A$ modulua x ordu-kopurua x 15 ikasle

$B = B$ modulua x ordu-kopurua x parte hartzen duen ikasle-kopurua

B) Gehieneko modulu ekonomikoak.

Azkenean aplikatu beharreko modulu ekonomikoek ezin izango dituzte inola ere gainditu martxoaren 28ko TMS/368/2019 Aginduan aurreikusitako gehienekoak (uztailaren 3ko 694/2017 Errege Dekretua garatzen du agindu horrek), eta, profesionaltasun-ziurtagiriak lortzera zuzenduta dauden prestakuntza-ekintzen kasuan, gehieneko muga urriaren 10eko ESS/1897/2013 Aginduan jasotakoa da (horren bidez garatzen da 34/2008 Errege Dekretua, urtarrilaren 18koa, profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituena). Ondorioz, aplikatu beharreko amaierako modulua osatzen duten hiru moduluen batura aipatu diren araudietan aurreikusitakoa baino handiagoa bada, azken horiek aplikatuko dira, hau da, 8 euro profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko prestakuntzarako, eta 13 euro profesionaltasun-ziurtagiriak lortzera bideratuta ez dagoen prestakuntzarako.